



# hariak

2019ko martxo

Recreando la educación emancipadora



sakonean en profundidad solasean en diálogo ekin  
lanari hay alternativas begirada konprometituak  
miradas comprometidas matxino artean en rebeldía



Argitalpen honek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (GLEA) babesa izan du, honako proiektu honen markoan *Hariak ehunduz II. Unibertsitatean Hezkuntza emantzipatzaileko proposamenak taldean erakitzea* (2017). Testuen edukia Hegoaren erantzukizunpekoa da, eta ez dute nahitaz GLEAren iritzia islatzen.

**Argitaratze kontseilua:**

Inmaculada Cabello Ruiz  
Juanjo Celorio Díaz  
Sandra Dema Moreno  
Alejandra Boni Aristizábal  
Joseba Sainz de Murieta Mangado  
M<sup>a</sup> Luz De la Cal Barreda  
Jone Martínez Palacios  
Jaume Martínez Bonafé  
M<sup>a</sup> Jesús Martínez Usarralde  
Gema Celorio Díaz  
Amaia del Río Martínez

---

**Lege-gordailua:** BI-1805-2016

7.zk., 2019ko martxoa

**Diseinua eta Maketazioa:** Marra, S.L.

**Azaleko argazkia:**

"Atzean, auzoa", Joseba Sainz de Murieta



---

Aldizkari hau paper ekologikoan inprimatu da, eta horren lehengaia baso-kudeaketa iraunkorraren bitartez eskuratu da.

**Finantzatzailea:**



**Argitaratzailea:**



UPV/EHU

Zubiria Etxea Eraikina

Agirre Lehendakariaren etorbidea 81 • 48015 Bilbo

Tel.: 94 601 70 91 • Faxe: 94 601 70 40

UPV/EHU

Arabako Campuseko Liburutegia

Nieves Cano kalea 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 42 87 • Faxe: 945 01 42 87

UPV/EHU

Carlos Santamaria Zentroa

Elhuyar Plaza 2 • 20018 Donostia-San Sebastián

Tel.: 943 01 74 64

[www.hegoa.ehu.eus](http://www.hegoa.ehu.eus)



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau koptatu, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedeetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

# aurkibidea



2

## editoriala

Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea, emantzipaziorako tresna  
*M<sup>o</sup> Luz de la Cal Barredo*

4

## sakonean

Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea, eraldatzeko tresna modura  
*Igor Ahedo*

10

## solasean

Antropologiak ekarpena egiten dio mundu aldakorrera irekitako unibertsitatearen zentzuari, ulermenari  
*Teresa del Valle Murga eta Juanjo Celorio Díaz*

20

## ekin lanari

Sarean eraldatu: kontsumoaren esparruko indarkeria matxistei buruzko talde-begirada  
*SETEM Hego Haizea*

Gazte eta herri komunikazioa: esperientzia bat IAPTik abiatuta  
*Luz Ángela Rojas Barragan*

Talka: bollera, trans eta emakumeen saretzerako lehenengo espazio okupatua Gasteizen  
*Talka*

26

## begirada konprometituak

**zinema/dokumentalak** Hezkuntza salgai • Mapeatze kolektiboko tailerra, sozialki konprometitutako ikerketa eta ekintza parte-hartzailean

**argitalpenak** Ciencia, compromiso y cambio social. Antología de Fals Borda • La Investigación Activista Feminista. Un diálogo metodológico con los movimientos sociales

**erakundeak** Emagin • CIMAS sarea, gizarte eraldaketarekin eta partaidetza demokraziekin konprometitutako profesionalen sarea

**ezinbesteko agenda** "Investigación Comprometida para la transformación social"

Hezkuntza Ikerketari buruzko Nazioarteko XIX. Biltzarra •

"Epistemologías del Sur" espezializazioa eta nazioarteko ikastaroa

30

## matxino artean

Greba feminista. ¡Este año volvemos a hacer historia!

sakonean en profundidad solasean en diálogo ekin  
lanari hay alternativas begirada konprometituak  
miradas comprometidas matxino artean en rebeldía

## Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea, emantzipaziorako tresna

Aurreko mendearen erdialdera arte, gizarte-zientzietan, ikerketak ikuspegi kuantitatibo hertsia izan ohi zuen, natura-zientzien berezkozat jotzen zen metodo zientifikoak zuzenduta. Ikuspegi horri, tradizioz, ezaugarri hauek esleitu izan zaizkio: esperimentazioa, objektibotasuna eta legeen egiaztapena eta frogaketa; horiei esker, aurrerapen handiak egin dira ezagutzan. Alabaina, paradigma enpiriko eta analitiko hori ez da beti egokiena gizarte-zientzien ezagutzan aurrera egiteko (natura-zientzietan paradigma posible bakarra hori izatea ere eztabaidagarria da). Zenbait arrazoi daude: aztertu beharreko gertakariak askotarikoak direnez (politikoak, sozialak, historikoak) eta elkarren arteko elkarrekintza dagoenez (ezin dira banandu), diziplina arteko ikuspegia behar da; ezin dira laborategi batean errepikatu, gizakien banakako eta taldeko portaerarekin zerikusia dutelako, eta hori aldakorra da, eta, beraz, zailagoa da aurreikuspenak egitea.

Fenomeno bat ikertzeko metodo baten egokitasuna gorabehera, aipatu behar da ikertzeko aukera bakoitzak errealitatearen ezagutza-kategoria jakin batzuk lehenesten dituela eta, are garrantzitsuagoa, asmoak zehazten dituela. Paradigma enpiriko eta analitikoak, batez ere, *interes teknikoa* du eta horren asmoa fenomenoak aurreikusi eta kontrolatzea da. *Interesa praktikoa* bada, erreferentziako paradigma historiko eta hermeneutikoa izango da, zeinaren helburua ez den hainbeste errealitatea behatu eta kontrolatzea, baizik eta fenomenoak eta portaerak ulertu eta interpretatzea testuinguru zehatz batean, orientatzeko eta kokatzeko xedez. Ikuspegi holistikoa da eta teknika kualitatiboak erabiltzen ditu. Azkenik, paradigma kritiko eta sozialak *interes emantzipatzaile edo askatzaile* du, eta botere-egituren mekanismoak eta funtzionamendu-dinamikak azaldu nahi ditu. Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea azken bi horiekin lotzen da.

Hegoaren Giza Ekintzari eta Garapenerako Lankidetzari buruzko Hiztegiaren arabera, Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea "errealitatea ikertzeko eta ikasteko metodo kolektibo bat da, zeina analisi kritikoan oinarritzen den, eta zeinetan nahastutako taldeek aktiboki parte hartzen duten; metodo horren helburua jardunbide eraldatzailea eta gizarte-aldaketa suspertzea da". Definizio horrek barne hartzen du Ikerketa Ekintza Parte-hartzailearen ezaugarri nagusietako bat: landu nahi diren arazoaren eraginpeko pertsonak dira prozesu osoaren protagonista nagusi eta ezinbestekoak. Eta ezaugarri horrek bereizten du Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea ikertzeko modu tradizioaletik, zeinean pertsona edo talde gaitu batek errealitatearen alderdi bat lantzen duen, hipotesi bat esperimentu bidez egiaztatzeko zein hura deskribatu edo aztertzeko. Horrelako ikerketetan, ikertzen den komunitatea (edo ikerketa eskatu duena) mendeko maila batean dago eta ez du prozesuan parte hartzen; hala, ondorioak soilik ezagut ditzake.

Aldiz, Ikerketa Ekintza Parte-hartzailean, parte-hartzeak esan nahi du proiektuan nahastutako komunitateak ere prozesuan parte hartzen duela, ikertzaile profesionalen gain; hain zuzen ere, komunitatea ez da ikerketa-objektu hutsa, bere errealitatea ezagutzen eta eraldatzen laguntzen duen subjektu aktiboa baizik. Ekintza ez da ikerketaren azken helburua soilik; aitzitik, ekintza bera ezagutza-iturri bat da, ikerketa egitea esku hartzeko modu bat den heinean. Teoria eta praxia batzen ditu, eta aukera ematen die herritarrei ikasteko, beren errealitateari buruzko kontzientzia kritikoa izateko, ahalduntzeko, indartzeko eta beren sare sozialak zabaltzeko, bai eta mobilizazio kolektiborako eta ekintza eraldatzaileerako ere.



Ikerketa Ekintza Parte-hartzaileak alde politiko bat dauka; hain zuzen ere, ikerketan sortutako ezagutza erabili nahi du gizarte-desberdinkeriak mantentzen lagundu duten botere- eta menderatze-harremanak eraldatzeko.

Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea askotariko esparruetan aplikatzen da eta, beti Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea zentzu hertsian ez den arren, askotan partaidetzako eta hausnarketako prozesuak sustatzen dira, zeinetan errealitatea aztertzen, interpretatzen eta eztabaidatzen, esku hartzen eta eraldatzen den; urrats horiei guztiei esker, esperientzia horiek Ikerketa Ekintza Parte-hartzailearen tresnara hurbiltzen dira.

*Gizarte-mugimenduetan*, pertsonak eta taldeak mobilizatzen dira beren gatazkak aztertzeko eta konpontzeko, biltzar bidezko prozesuen, gizarteari zabalduko tailerren eta foro sozialen bidez; estrategia horiek mugimendu feministen, ekologisten eta globalizazioen aurkakoen bereizgarri izan dira, besteak beste.

*Lan-harremanetan*, parte-hartze taktikak erabiltzen dira, hala enpresen estrategien zerbitzura nola langileak bizi- eta lan-baldintzen protagonistatzat dituzten prozesuen zerbitzura. Lehenengo aukera hori ez da oso emantzipatzailea, langileei beren lan-baldintzetan partaidetza aktiboa eta atsegingarria ematearen helburua ekoizpena eta irabaziak hobetzea baita (Elton Mayo, Kurt Lewin). Bigarren motako prozesuak, berriz, sindikatu, kooperatiba eta beste erakunde batzuetan egiten dira eta haien helburua, lan-baldintzak hobetzeaz gain, errealitatea eraldatzearen kontzientzia hartzea da.

*Gizarte-garapenaren* arloan, parte-hartze prozesuak nabarmentzen dira gizarte-premiak hautemateko, eta premia duten subjektuek ere tokia dute horietan.

*Hezkuntza* eremu paregabea da Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea aplikatzeko. Paulo Freireren ikuspegia eta haren hezkuntza "askatzailea", esaterako, guztiz bat datoz Ikerketa Ekintza Parte-hartzaileko prozesuekin, zeinek jardunbide pedagogikoak aldatu nahi dituzten, heziketa-lanari buruz hausnartu eta erabakita.

Ikerketa Ekintza Parte-hartzailearen arloko zenbait aditu gailenen arabera, Fals Bordaren arabera, esaterako, metodo hori beharrezko bizipena da demokrazian aurrera egiteko, prestakuntza integrala sustatzen baitu eta aukera ematen baitu zenbait jarrera, trebetasun eta gaitasun eskuratzeko (herritarrak, partaidetzakoak, kulturartekoak eta bakera bideratutakoak) gizarte demokratikoak garatzen eta finkatzen laguntzeko. Gainera, gizarte-eragileak antolatzeke eta parte hartzeko modu berriak sustatzen ditu, zeinak ezinbestekoak diren ziurgabetasuna kudeatzeko; hain zuzen ere, gaur egungo gizartearen ezaugarri bereizgarrietako bat da ziurgabetasuna.

M<sup>a</sup> Luz de la Cal Barredo  
(UPV/EHUko Lan Harreman eta Gizarte Langintza  
Fakultateko irakaslea).



Curruscu utzitako irudia.

## Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea, eraldatzeko tresna modura

Igor Ahedo politika-zientzien irakaslea da UPV/EHU eta **Partaidetza eta Komunitate Garapeneko Unibertsitate Masterraren** zuzendaritza-taldean dago. Errekalde auzoan aktibista moduan izan duen esperientziaz gain, prozesu parte-hartzaile ugari dinamizatu ditu profesionalki, besteak beste, Berdintasunerako Legearen ebaluazio kualitatiboa, bizikidetzari buruzko (Urretxu) eta zaurgarritasunei buruzko (Zumarraga) diagnostikoak eta prozesu parte-hartzaileak Errekaldere eta Ibarrangeluren hiri-diseinua egiteko.

Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea mundurako hurbilketa bat da, zeinak metodo zientifikoaren premisa tradizionalarekin hausten duen eta, hain zuzen ere horrexegatik, zorroztasuna eta errealitatearen konplexutasuna hautemateko gaitasuna areagotzen dituen. Metodo tradizionalaren begirada ustez neutral, aditu, urruneko, bertikal eta sinplifikatzailearen aldean, Ikerketa Ekintza Parte-hartzaileak beste premisa batzuk ditu: guztiek parte hartzen dugula, trebetasunik garrantzitsuena norberaren bizipenak direla, distantzia itxurakeria abangoardista dela, errealitatea konplexua dela eta ezagutza eraikitzeke logika horizontala izan behar dela, eraginkorra izateko. Errealitatea objektua balitz bezala aztertzen duen hurbilketa baten aldean, Ikerketa Ekintza Parte-hartzaileak errealitatea subjektutzat hartzen du. Hala, Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea jendearekin egiten da, partaide diren pertsonekin; haiek mapen, kaleen, guneen, borroken, indarguneeen eta bizitzako nahigabeen inguruan (oroimen, beldur, garaipen eta porrotetan oinarrituta) egiten dituzten interpretazioekin egiten da. Hain zuzen

ere, Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea bizitzatik, bizitzarekin eta bizitzarako egiten da. Eta bizitza ulermena (ikerketa), mugimendua (ekintza) eta harremana (parte-hartzea) da.

Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea tresna bat da, bere metodologiak, antolatzeke moduak, trikimailuak eta erronkak dituena<sup>1</sup>. Baina are garrantzitsuagoa da: norbera gainerakoetan, hots, bestean ezagutzeko modu bat da. Latineko *cognoscere* aditzak zerbaitez "jabetzea" esan nahi badu, Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea tresna bat da, zeinak aukera ematen duen geure existentziaz jabetzeko eta konturatzeko subjektu kolektiboa garela, eta ez laborategiko objektuak. Eta premisa horretatik abiatuta soilik eraldatu dezakegu errealitatea. Bai eta geure buruak ere.

1 Gai horiei buruz asko idatzi da, eta ohar hauen amaieran erreferentzia batzuk aurkituko dituzue.

## Ezinezkoa dena gertagarri egiteko artea

Parte-hartzeaz hitz egiten dugunean, gure espezieak hobeto bizitzeko egiten dituen saiakera ohoragarrienen oinarrian dagoen bulkada batez ari gara; bulkada hori gure izaeraren zati da, hainbeste ezen Aristotelesek gizakia *zoom politikon* (animalia politikoa) zela esan baitzuen. Baina, zertan datza gure espeziearen izaera politikoa? Eta zehazkiago, zer da politika? Gure ustez, politika da "*ezinezkoa dena gertagarri egiteko artea*"; izan ere, guretzat, giza izaera funtsean kontraesankorrari erantzun egokia emateko gai den tresna bakarra da. Baieztapen horren logika ulertze aldera, Paradisuaren galeraren metaforatik abiatuko gara politikaren zentzura hurbiltzeko. Metafora horrek gogorarazten digunez, gizakiok garen bezalako bihurtu ginen, "historiako" lehenengo desobeditze-kasuarekin kontzientzia lortu genuenean (Fromm, 1986), hots, jakinduriaren sagarra jan genuenean. Jainkoak ez zuen lehiarik nahi eta, hala, paradisuatik bidali gintuen, bizitzaren arbolaren fruituen bidez hilezkortasuna lor ez genezan.

Azken finean, mundura itxaropen eta desioz (kontzientzia eta ezagutza) beterik heldu ginen, baina horiek asetzeko bizitza bakarrarekin, baliabide mugatuak dituen mundu batean. Itxaropen mugagabea dugu, aukera mugatuko ingurune batean, eta itxaropen hori da, hain zuzen ere, giza izaera kontraesankorraren erdigunea. Eta, gainera, geure historiako gatazka eta desberdinkeria guztien oinarrian dago.

Zaurgarritasunari aurre egiteko gaitasuna baliabide pribatuetan oinarritu izan da (eta oinarritzen da, askotan); horiek aukera ematen dute ondasun materialak, familia-sareak eta komunitateko elkartasuna lortzeko. Dirua, familia eta odola ziurgabetasunari erantzuten dioten elementuak izan dira (eta dira oraindik ere). Baina guztiak ongizaterako aldi baterako sarbideak dira. Jakina, hiru erantzun horietako bakoitza pribatua da, biztanleria guztiari eragiten ez dioten irtenbide pertsonalak ematen baititu. Hortaz, irtenbide partzialak dira: batzuentzat baliagarriak (baliabideak, sareak eta familia dutenentzat), baina beste batzuentzat ez. "Irtenbide" partikular horien aurrean, politika eskakizun publikoaren eremuan soilik hasten da eragina izaten. Politika, "ezinezkoa dena gertagarri egiteko arte" moduan ulertuta; izan ere, *baliabide bakarra da hasiera batean pribatu moduan hartutako arazoei erantzun publikoak emateko; horretarako, komunitate osoari eragiten dioten bete*

*beharreko arauak egiten dira* (Valles, 2000). Ikuspegi horretatik, politika da komunitateak autokudeatzeko duen tresna kolektibo bakarra, oihaneko legeaz eta "salba bedi ahal duena" egoeraz harago. Baina, hori gerta dadin, herritarrek bere gain hartu behar dute erantzukizuna, politizazio-prozesuen bidez.

## Parte-hartzearen ipuina

Haurren ipuinek balio ugari biltzen dituzte, zeinak obedientzian, ezagutzen ez dugunarekiko beldurrean, menderatze-logiketan, rol patriarkaletan eta abarretan oinarritutako ereduak errepikatzen dituzten. Horren adibide klasikoa da Errauskineren ipuina. Ezin da heldu Printzearengana (jakina, gizonezkoa), bere ahizpaordeek eta amaordeak (jakina, emakumezkoak) inbidia diotelako, eta bere bakardadea maitagarri bati esker soilik utzi dezake (eta guztiok dakigu maitagarriak ez direla existitzen).


Ziur? Zer gertatuko litzateke terminoak aldatuko bagenu? Demagun printzea boterea dela, zeinera klase pribilegiatuak soilik heltzen diren ("goikoak"); klaseok harreman bikaina dute beren artean eta indartsuak dira (amaordea eta ahizpaordeak). Ipuinari horrela begiratuta, alderdi askoz ere errealegoa ikusten da: Errauskine boteretik kanpo utzitako pertsona da, hots, gutxi batzuen erabakien ondorioak jasaten ditugun gehiengoa (erabaki horiek ez baitira egokitzen *demosaren* nahietara, Ibarra [2010] adierazten duen moduan). Seguruenik, ipuinean bezala, ez guke pentsatuko boterera heltzeko edo erabakitzeke eta "horrela ez" esateko gaitasuna izan dezakegunik. Eta gauzak horrela izango ziren urte luzez... maitagarria bere kuia eta saguekin agertu ezean.

Baina, existitzen al da maitagarria? Jakina, ipuinean bai. Kontua da, ipuinean ez bezala, gure bizitzan ezin garela maitagarria noiz heldu zain egon. Hain zuzen ere, Errauskinek objektu izateari utzi nahi badio, gai izan behar da beste era batera pentsatu eta ikusteko errealitatea ez dela berez horrela; aitzitik, mendekotasun-egoera horren oinarrian, oraindik ere baldintzatzen gaituzten logikak eta egiturak daude, zeinak, egiaz, gizakiek sortzen dituzten, milaka Errauskinek eta amaorde batzuek. Eta, horrexegatik, gizakiek sortzen dituztelako, alda daitezke.

Beraz, maitagarria, hots, gure ipuina alda dezakeen magia, politizazioa da, besterik gabe. Errauskine bakarrik ez dagoela konturatzen bada, eta ikusten badu bere arazoa (ustez zorua garbitzera behartuta egotea) ez dela pribatua, baizik eta milaka Errauskinek

arazo bera dutela, orduan konturatuko da bere mendekotasuna egiturazkoa dela, hots, publikoa, eta aurre egin ahal izango dio. Herritarren partaidetzako prozesuak eragiten dituzten politizazio-estrategien erdigunean dago uste hori, hots, gizarte-arazoei jatorri publikoa dutela. Hain zuzen ere, politizazio-prozesuaren helburua publikoa denez, sareak artikulatzeko prozesua da.


Ikuspuntu horretatik, hauxe da Errauskineren ipuinaren hasierako botere-harremanak irudikatzen dituen soziograma (sareen azterketa):



Politizazioaren magiari esker, Errauskine konturatzen da bere arazoa ez dela pribatua eta ez dagoela bakarrik. Horregatik, bere ustezko zorigaitzoaz kexatzeri utzi eta konturatzen da besteek mendeko moduan tratatzen dutelako garbitzen dituela zoruak. Eta laster ikusten du ez dagoela bakarrik eta, beste Errauskine batzuekin elkartuta, zoruak garbitzeari utzi eta, are gehiago, ipuina alda dezakeela.

Ikuspegi horretatik, gure bizitzetako magia edo maitagarria parte-hartzea errazten duen politizazioa da eta, parte-hartze horrek, benetakoa izango bada, sareak artikulatu behar ditu. Saguak milaka esperientzia dira, hots, milaka auzo, elkarte zibil eta erakunde konprometituren esperientziak, zeinek askotariko ekimenak jartzen dituzten martxan: partaidetzako aurrekontuak, komunitate-planak, hiri-antolamenduko parte-hartze proposamenak, autokudeatutako eta elkarrekin erabakitzeko gu- neak... Eta kuiak partaidetzako ekintzak dira, eta horien bidez gauzatzen da Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea: gure auzoetan barrena egindako *deribak*; arazoetan dugun erantzukizuna ulertzeko *fluxu-diagramak*; rol eta diskurtso suntsitzaila eta konstruktiboak identifikatzeko *talde-dinamikak*; gure arazoei buruz hausnartzeko *tailerrak*; gure harremanak ezagutzeko *botere-mapak*...

Ikuspegi horretatik, Errauskineen arteko loturak gizartearen energia (eta Ekintza) irudikatzen du, zeinak agerian jartzen dituen (Ikerketa) presio- talde ekonomikoaren logikak (ahizpaordeek harreman txarra dute elkarren artean, baina Errauskineek arropa zikinak garbitu diezazkieten nahi dute); presio-taldeak soilik heldu ahal izan dira, urte gehiegiz, boterera (tradizioz, alderdi politikoen bidez ordezkatu da). Errauskineen arteko lotura horrek ipuinak (Parte-hartzea) alda ditzake, boterea Printzeari kendu eta Errepublikak (*res publica*) bihurtuta. Errauskineen arteko lotura horrek, feminismoak erakutsi duen moduan, segurtasuna, konfiantza eta maitasun komunitarioa ematen ditu. Hori funtsezkoa da garai beltz hauetan. Eta berreskuratu egin behar dugu.





## Autodefentsa komunitarioa

Hain zuzen ere, izaki bizidun guztien portaeraren printzipioetako bat ziurgabetasunetik aldentzea da. Gure espeziean, identitatea segurtasuneko elementu artikulatzailea da eta babesa ematen duen komunitate-testuinguru batean kokatzen du pertsona. Aurreko mendeetan, uniformetasun ekonomikoan (klasea) eta politikoan (estatua edo nazioa) oinarritutako identitate indartsuak sortu ziren. Gaur, berriz, babesa ematen zuten testuinguruak gero eta lausoagoak dira. Garai batean industrialak ziren udalerriak beren bandera-ontziak izandakoak (La Naval, Arcelor) nola hondoratzen diren ikusten ari dira. Herria babesten zuen Estatuaren ikuspegia suntsitzen ari da, merkatuen bortiztasuna, krisien ondorio kaltegarrien bizkortasuna eta herritarrak elite harraparietatik babesteko erakundeek duten ezintasuna direla-eta. Gure testuinguruan, errealtatea ez da hobea; izan ere, estaturik gabeko nazioek aurrez aurre dituzte kultura eta hizkuntza uniformatzeko prozesuak, zeinek zalantzan jartzen dituzten garai batean oso indartsuak ziren oinarri komunitarioak. Hori gutxi balitz, sare sozialek gezurrezko komunitate-zentzua sortzen dute, errealtatean harremanik ez duten banakoen multzo antolatua besterik ez baita. Bakardadearen sufrimendu subjektiboaz gain, beste sufrimendu objektibo batzuk ditugu, sistemak herritar gehienei eragiten dizkien desberdinkerien, bidegabekerien eta abusuen ondorioz.

Ziurgabetasuneko testuinguru horretan, instituzioak hauteskundearen epe-laburkeriara jolasten dira, beren buruak eskubideen defentsarako estrategia sinbolikoen bidez zurituz, baina estrategia horiek, praktikan, ez dute desberdinkeriei buelta emateko baliabiderik. Bestalde, mugimendu progresistek, *statu quo*ari aurre egiteko, gero eta zatituago dauden errealtatearen artean zubiak ezartzeko logikak erabiltzen dituzte, garai batean klase-logikak artikulatzen zituzten elementuak desagertzen ari diren heinean. Ikuspegi horretatik uler daitekeenez, askotariko errealtateak elkartzeko, gutxieneko ezaugarri komun integratzaile, deigarri eta koloretsuak, baina ez oso mobilizatzaileak behar dira.

Azken finean, instituzio tradizionalak eta mugimendu progresistak ez dira gai ziurtasuna eta segurtasuna emateko. Testuinguru horretan, neoliberalismoak hondatutako lurra emankor bihurtzen da eskuin muturreko mugimenduentzat, zeinek gauzak erraz jartzen dizkieten merkatuei (ikus VOX alderdiak

“ Neoliberalismoak hondatutako lurra emankor bihurtzen da eskuin muturreko mugimenduentzat, zeinek gauzak erraz jartzen dizkieten merkatuei ”

hezkontzari, osasun pribatuari eta politika fiskalari buruz egindako proposamenak). Beren benetako helburuak lortzeko, multiplo komun handiena aurkezten dute (zezenak, bandera, errekonkista), eta neoliberal eta kontserbadoreen abangoardian jartzen dira, haien anaia *makarrak* balira bezala.

Horri erantzuteko, buelta eman behar zaie ziurgabetasunaren ardatzei. Eta lan horretan nahastu behar dira, eskuz esku, hala sistema aldatu nahi dutenak benetako berdintasuna areagotuz nola orain arte nagusiki berdintasun formalaren bidez mantentzearen alde egin dutenak, hots, gure udalerrietan gehiengo eztabidaezina duten alderdi politikoak. Haien lehentasuna herritarren sareen egituraketa berreskuratzea izan beharko litzateke, zainketa komunitarioko estrategien bidez, zeinek agerian jarriko dituzten nahigabe objektibo, material eta berehalakoak, baina baita kezka subjektibo, immaterial eta etorkizunekoak ere. Hala, ia herritar guztiak egoera berean daude: ez dute etorkizuneko aukerarik, eta haien familiakoek ere ez (edo, osterantzean, etorkizuneko aukerarik ez dutela sentitzen dute). Askok sentitzen dute frustrazioa: guraso askok, beren seme-alaben etorkizunaren aurrean; zainketa-lanetan aritzen diren emakumeek; sexu-identitatea aintzatesten ez zaienek; baina baita langabezia dauden edo lan prekarioa duten 40 eta 50 urte arteko gizonak ere, gizonak ogia irabazi behar duela dioten logikaren barruan sozializatuta baitaude, eta orain ezin dute maskulinitate toxiko horren itxaropena bete. Bakardadeak jende askori egiten dio kalte: migratzaileei, haur askori... baina, batez ere, adinekoei eragiten die, eremu pribatuan isolatuta baitaude. Aurreiritzia eremu guztietan dago, baina beste kultura batzuetako jendea eragiten dio nabarmenen. Desberdinkeria populaziotalde guztietan nagusitzen da, baina herritarren erdian (emakumeen) bizitzak birrintzen ditu.

Bakardadea, frustrazioa, aurreiritziak, desberdinkeria eta aukera falta ia guztiok ditugun nahigabeak dira. Gaur, atzo eta bihar. Guri zuzenean edo familiakoen edo lagunen bidez eragiten digute. Sustrai objekti-

“Gizarte-mugimendu progresistek eta erakundeek parte-hartze estrategiak sustatu behar dituzte, gure garaiak auzolanaren logikara egokitzeko”

boetan edo ziurgabetasun subjektiboetan oinarritzen dira. Azken finean, despolitizazio-prozesu batez elikatzen diren nahigabeak dira. Aurreko mendean (eta gaur egun feministen eta pentsionisten kasuan), pribatutzat jotzen ziren arazoak politizatzeke eta horientzako irtenbide publikoak bilatzeko borrokatzen zen; gaur egungo erreakzioak, berriz, pribatuan nahigabetutako subjektuak nahi ditu, zeinak identitate itxi eta baztertzailen fikzioetara makurtzen diren; fikzio horiek, beren aldetik, segurtasunaren fikzioa ematen dute, bandera homeopatiako pilula modura erabili eta arreta benetako nahigabeetatik desbideratzeko. Horregatik, gizarte-mugimendu progresistek eta erakundeek parte-hartze estrategiak sustatu behar dituzte, gure garaiak auzolanaren logikara egokitzeko, zainketa komunitarioko proiektuetan oinarrituta, oraingoan; proiektu horiek komunitatea, konplizitatea eta enpatia ehundu eta baliabide materialez (eta ez soilik sinbolikoz) hornitutako estrategiak planifikatu eta diseinatuko dituzte. Komunitateak ez dira aldarrikapenez eta errepedeez egituratzen, komunitateko eta partaidetzako estrategien bidez baizik, zeinak gai diren segurtasuna eta auzotasuna sortzeko, eta hormak altxatzen dituzten ziurgabetasunaren eta bestearekiko beldurraren aurka.

## “Nireari buruz, zer?” galdetzetik, “gureari buruz, zer?” galdetzera

Gauzak horrela, kontua litzateke nola eman buelta egoera horri, eta Errauskineak biltzea lortu, alde batera utzita erreakzionarioen sirena-kantuak, zeinek indibidualismoa elikatzen baitute, ahulena suntsitzean oinarritzen den fikzio komunitarioaren atzean. Zer tresna dugu eskura hezkuntzatik pedagogia eraldatzailea egin nahi dugunok, erakundeetatik komunitatearen zentzua bermatzen jarraitu nahi dugunok, gizartetik pertsonen bizi-kalitatea hobetzen jarraitu nahi dugunok, azken finean, Errauskineen alboan egon eta printzearen botere-logikak *res publica* (gauza publikoa) delakoaren logika bihurtu nahi ditugunok?

Gure eskura dugu tresnetako bat Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea da, hots, nahigabeak diagnostika-

tzeko protagonismoa komunitateari ematen dion metodologia; hortik abiatuta, “nireari buruz, zer?” logikatik “gureari buruz, zer?” definitzeko helburura pasatzen da. Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea, hortaz, ireki eta ixteko metodologia batean oinarritzen da, zeinak, eskusoinuaren antzera, ahalik eta aire gehien hartu ondoren soilik lortzen duen musika. Prozesu komunitario osoaren fase bakoitzean (proiektua zehaztea, diagnostikoa egitea, proposatzea, gauzatzea eta ebaluatzea), dinamika bikoitza proposatzen da: lehenik, irekitzekoa, nahigabe, diskurtso eta eremu guztietara heltzeko, zertarako eta, bigarrenik, zehazteko zer elementuk batzen, egituratzen eta elkartzen dituzten arlo pertsonala eta kolektiboa, hots, zer elementuk sortzen duten musika hasierako zaratatik.

Ikerketa Ekintza Parte-hartzaileko dinamika batean, parte-hartze metodologiaren bidez, komunitatea bere buruari buruz hausnartzen hasten da, lehenik alderdi pertsonaletik abiatuta. “Nireari buruz, zer?” lau haizeetara aldarrikatzeko aukerarekin hasten da. Irrika hori eremu pertsonaletik hasten da, baina, aipatu berri dugun moduan, askotariko nahigabeak zeharkatzen ditu (bakardadea, ziurgabetasuna, desberdinkeria, frustrazioa). Baina askotariko nahigabe, diskurtso, beldur eta esperantzetara ireki ondoren, Ikerketa Ekintza Parte-hartzaileko metodologiak bide eman behar dute elkartze-elementuak, logika partekatutako eta estrategiak identifikatzeko, “nireari buruz, zer?” bakoitza baztertu gabe, gai izango direnak “gureari buruz, zer?” bat antolatzeko. Ikuspegi horretatik, Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea ikerketa komunitarioa da. Baina ekintza ere bada. Helburua ez delako diagnostikoa egitea, ezpada errealitatea eraldatzea. Horregatik, ekintzan, “geurea” azaleratzen da, “nirea” guztiak multiplo komun handiengan murgilduta.

Are hobeto, ekintza eraldatzailean azaleratzen da geurea. Ondorioz, Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea ezin da diagnostikoan edo proposamenaren fasean amaitu; aitzitik, ekintza parte-hartzailean jarraitu behar du. Diseinatzen diren programak ez dira kanpoko errealitate baten esku uzten; aldiz, komunitateak berak inplementatzen ditu, komunitatetzat hartuta erakundeak, elkarteen sarea eta herri-sare informalak. Zaintzea da gure seme-alabei eta gure adinekoei laguntzea, halako moldez non gurasoek, saltzaileek eta erakundeek lan egingo baitute komunitatea sortzeko, ikastetxeen sarreretako semaforoak kontrolatuz, beren negozioak segurtasuneko eta atsedeneko gune modura eskainiz, puntu beltzekin amaituz. Ikerketa



Curruscu utzitako irudia.

Ekintza Parte-hartzailean, ezer ematen ez duen "nireari buruz, zer?" logikatik harago goaz, "gureari buruz, zer?" logika batzailerantz aurrera egiteko.

## Asko gutxitan, eta ez gutxi askotan

Horregatik, parte-hartzea eta Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea ezin dira izan parte-hartze momentuen batura hutsa. Parte-hartze momentuak ipuinak dira, hots, fikzioak sortzen dituzten baina komunitatea eratzen ez duten ilusioak. Are okerrago, hautsi egiten dute, ez dutelako uzten "nireari buruz, zer" horretatik irteten, hots, "egoismoen" zaratatik irteten. Aldiz, parte-hartzea eta Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea metodologia modura erabiltzeko, denboran antolatutako prozesuak eta logikak behar dira, hots, epe ertain eta luzean antolatutako prozesuak. Ondorioz, Ikerketa Ekintza Parte-hartzailerako egitura egonkorak behar dira, zeinetan parte hartuko duten antolatutako edo antolatu gabeko herritarren, politikarien eta teknikarien ordezkariak. Egiturok korridore modukoak izan behar dira, zeinak partaidetza zirkulu zentrokideko logiketan lotuko duten, limurtzen, inplikazioa lortzen eta, batez ere, agerian jartzen pertsonen nahigabeak eta nahiak kontuan hartuko direla. Egitura horiei esker, jende askok gutxi egitea lortu behar da, hots, aurreko logika gaiztoak hautsi behar dira: ordezkari itzazkoak (nik erabakitzen dut, herria alde batera utzita), ezkerreko

indar batzuen abangoardismoarena (nik agintzen dut, herria alde batera utzita), eta muturreko eskuin osoaren elitismoarena (herriaren gainetik pasatzen naiz).

Sareak ehuntzea, Errauskineak elkartzea, eremu pertsonaletik sufritzea eta eremu kolektibotik amets egitea. Berriz jaiotzea, besteekin batera. Geure burua subjektu moduan ezagutzea.

## Bibliografia

- Vallès, Josep Maria (2010): *Ciencia Política, una introducción*. Bartzelona, Ariel.
- Ibarra, Pedro (2011): *Democracia relacional*. Madril, CEPC.
- Fromm, Erich (2002): *Sobre la desobediencia y otros ensayos*. Bartzelona, Paidós.
- Ibarra, Pedro eta Asier Blas (2010): *Participación, estado de la cuestión*. Bilbo, Hegoa (2019ko otsailaren 3an kontsultatua), hemen eskuragarri: <[www.ehu.es/ojs/index.php/hegoa/article/view/10754](http://www.ehu.es/ojs/index.php/hegoa/article/view/10754)>.
- Ganauza, Ernesto et al. (2010): *La democracia en acción. Una visión desde las metodologías participativas*. Madril, Antígona (2019ko otsailaren 3an kontsultatua), hemen eskuragarri: <[www.iesa.csic.es/publicaciones/120120123.pdf](http://www.iesa.csic.es/publicaciones/120120123.pdf)>.



Irudia: © Joseba Sainz de Murieta.

## Antropologiak ekarpena egiten dio mundu aldakorrera irekitako unibertsitatearen zentzuari, ulermenari

Teresa del Valle Murga. Euskal antropologoa, irakaslea eta ikertzailea. UPV/EHU<sup>n</sup> Gizarte Antropologia irakatsi zuen lehen pertsona izan zen, eta haren ibilbidean nabarmentzekoa da Antropologia Feministaren arloaren eta metodologiaren aurrerapenagatik interesa. Gaur egun, Gizarte Antropologiako katedradun emeritua da UPV/EHU<sup>n</sup>. Zenbait sari eta aitorten jaso ditu; besteak beste, aipagarria da Eusko Ikaskuntzak eta Laboral Kutxak 2018an eman dioten azkena, Giza Zientzien, Kulturaren, Arteen eta Gizarte Zientzien alorretan curriculumik nabarmenena izateagatik. Idatzi dituen liburu garrantzitsuenetako batzuk hauek dira: *Mujer vasca. Imagen y realidad* (1985); *Culturas oceánicas: Micronesia* (1987); *Andamios para una nueva ciudad. Lecturas desde la antropología* (1997); eta *Perspectivas feministas desde la antropología social* (2000).

Juanjo Celorio Díaz. Gradudun lizentziaduna Filosofia eta Letretan, Historia Modernoa eta Garaikidea atalean, Deustuko Unibertsitatean. Gizarte Zientzien Didaktikako irakaslea 2015era arte, UPV/EHUko Irakasleen Unibertsitate Eskolan. Irakaslea da Garapena eta Nazioarteko Lankidetzan Masterrean eta Nazioarteko Lankidetzan eta Hezkuntza Askatzailea Berezko Masterrean, biak UPV/EHUkoak. Hezkuntza-arloko hainbat artikulu eta argitalpen idatzi ditu. Ia lau hamarkadaz, irakasleen prestakuntzan aritu izan da. Hasi zenetik gaur arte, Hegoaren hezkuntza-taldeko kidea izan da, zeinetan lankidetzan aritu den hezkuntza askatzailea zehaztu eta garatzeko. Borroka feministarekin eta arrazismoaren aurkako mugimenduarekin konprometitutako aktibista da.



Juanjo. Plazera da zurekin elkartzea eta aukera izatea zure historiari eta bizitzari buruz hitz egiteko, eta ezagutzan, hezkuntzan, feminismoan eta beste zenbait alorretan egin dituzun ekarpenen inguruan aritzeko. Ziklo akademiko handia egin duzu irakasle, ikertzaile eta euskal gizarte-antropologiaren eraikuntzaren funtsezko erreferente moduan. Zure ustez, nola dago gizarte-antropologia gure unibertsitatean, UPV/EHU? Uste duzu euskal akademia osasuntsu dagoela? Zer oztopo eta aukera ikusten dituzu?

Teresa. Askok eskertzen dizut hitz egiteko aukera hau, orainalditik iraganera eta etorkizunera begiratzeko aukera; hain zuzen ere, elkarrizketetan, ekarpenak ez ditu elkarrizketatuak soilik egiten, hitz eginarazten duenak ere egiten ditu. Badakit zure ekarpenik egon ezean, ezkutuan geratuko lirakeen kontuak aterako direla gaurkoan.

Antropologiari dagokionez, UPV/EHU bereziki osasuntsu dago; hau da, horretan gogotsu ari diren ikertzaile eta irakasle on multzo bat dago. Irakaskuntzako lanean oinarritzakoa da komunikatzen eta partekatzen duzuna gustuko izatea. Osasun ona du, nahiz eta gaur egun bizitza akademikoan zailtasunak dauden, bikaintasuna, rankingak eta beste betekizun batzuk inposatu direlako. Funtsezko elementu bat dago: diziplina honek gizartean bere ekarpena egiten duela gogo biziz sinestea. Gizarte-antropologia ez zen hausnarketa akademiko huts moduan sortu, gizartearentzako hausnarketa ere bada, pentsatzeko eta aztertzeke moduak sortzeko modu bat, kontuan hartzeko kultura aldakorra dela toki bakoitzean, ez dutela elementu finkoek osatzen, eta, gainera, kultura horiek kritikatu daitezkeela. Gogo bizia ikusten dut gure unibertsitatean, une honetan.

Juanjo. Diozuna garrantzitsua da; egia da edozein proiektu egiteko beharrezko jarrera dela. Zuk, gainera, gogo bizia izan duzu beti guri buruz, hots, kolektiboari buruz hausnartzeko, elkarri nola begiratzen diogun aztertzeke.

Gustatuko litzaidake jakitea nola sortu zen zuegan kontzientzia. Donostian jaio zinen Gerra Zibilean, frankistek hiria hartu baino pixka bat lehenago. Zure lehenengo hezkuntza-erperientzia Berrizko Misiolari Mesedetakoan ikastetxean izan zen. Komunitate progresista zen, eta misioen munduaren eragina jaso zenuen han. Hala, urrutiko beste mundu batzuk ezagutzeko irrika piztu zitzaizun, zehazki, Mikronesia ezagutzeko. Horrela entzun

“Gizarte-antropologia ez zen hausnarketa akademiko huts moduan sortu, gizartearentzako hausnarketa ere bada”

zenuen erritualei buruz, halakorik ezagutu aurretik, eta ikuspegi antropologiko horretara bideratu zintuen horrek; baina, horren aurretik, AEBetara heldu, eta Historia ikasi zenuen. AEBetatik igaro izanak eta zure ikuspegi historikoak zure lehenengo ekarpen historiko eta antropologiko handizat jotzen dudana horretara hurbildu zintuen, hots, zure doktorego-tesira: Guam hegoaldeko luraren banaketa eta erabilera, kolonizazioaren aurkako erresistentzia modura. Konta iezaguzu, nola sortu zen kontzientzia zuegan?

Teresa. Zalantzarik gabe, heziketa goiztiarrean kokatzen dut, aipatu duzun Vera Cruz ikastetxe horretan. Azken bi edo hiru urteetan konturatu naiz gehien horretaz, zenbait arrazoiengatik esparru publikoan gehiago egon naizenean. Artea ere ikasi nuen; txikitatik egon izan naiz artearen munduarekin lotuta (arlotan horretan, nire familia oso garrantzitsua izan da), bai eta musikaren munduarekin ere, nahiz eta ez dudana uste musikarako gaitasuna dudanik. Izan ere, alderdi teorikoaz gozatzen nuen nik: musikaren historiaz, musikaren inguruko kultura-mugimenduek zenbait herrialdetan izandako garapenez. Musikako ikasketak oso probetxugarriak izan dira, gero beste diziplina batzuetan sartzeko.

Horrez gain, txikia nintzenean asko jolasten nintzen nire lagunekin, eta hori oso garrantzitsua izan da; debekatuta zeuden haitzuloak esploratu nituen –balentria handia da haitzuloan sartu eta beldurrari aurre egitea–, sukaldean aritzen ikasi genuen, patatak errez edo txokolata eginez. Estatu Batuetan zera galdetzen zidaten: “nola dakizu zuk hori?”. Eta nik erantzuten nuen egiten ikasi nuela, gerora helduen ezagutza bihurtzen ziren trebetasunak ziren. Jolasaren bidez ikasteko esperientzia hori metatuta nuen ondasun txiki bat zen.

Haurtzaro irekia izan nuen, frankismoaren garai ilun haietan. Irekitasun horietako batzuk Vera Cruz ikastetxean egon ziren, eta asko baloratu izan ditut beti. Ikastetxea *Jakinbide* deitzen zen lehenago; oso izen ederra da, jakintzari buruz ari baita, baina aldatu egin behar izan zuten, presio politikoak zirela eta. Irekitasun



Irudia: © Joseba Sainz de Murieta.

horiek urruneko munduei buruzkoak ziren, misioen munduen ingurukoak. Kongregazio horrek klausurako komentu zorrotz bat beste mundu batzuetara irekitako gune bihurtu zuen, non aukera gutxiago zituztela uste zen herrienganako elkartasuna balio bat zen, baita katolizismoa ere, noski, kongregazioarentzako elementurik garrantzitsuenetako bat baitzen une horretan.

Beti kontatzen dut, adibidez, Japoniako *Ikebana* lore-lanei buruz nekien guztia misiolariak bidaltzen zizkiguten argazkien bidez ikasi nuela. Unibertsitateko lankideek behin baino gehiagotan egin izan dute barre, ilaran jartzea ikaskuntza handia izan zela kontatu didanean. Berrizko Vera Cruz ikastetxea etxetzar handi bat zen, zuhaitzez inguratutako jolastoki handiak zituen, bai eta eskailera askoko zenbait solairu ere; hala, ikasgelatik jantokira joateko, ilaran igo eta jaitsi behar zen. Eskailera mailaz maila jaistean, aukera nuen historiaurreko eta artearen historiako beste garai batzuetako irudi piktorikoak ikusteko, maila bakoitzaren altuera inguruan jarrita

baitzeuden (ikastetxe horrek ikaskuntzaren arloan zuen kezkarik handienetako bat artea zen, batez ere arte-mugimendu handiak izandakoak). Eskailera horien mailetan egiten genituen geldialdiekin nekatu ordez, niretzat gozamina zen horietan zehar ibiltzea. Ikaskuntza erraza zen, eta, aldi berean, Greziara eta abangoardien garaietara eramaten ninduen. Emozionalki, jakintzaren garapena helarazten zidan, artearen bidez.

Beste elementu garrantzitsu bat ere bazegoen: irakasle bikain batzuen lana. Frantseseko irakaslearekin, ikasmahaitik mugitu gabe egiten genituen bidaiekin ikasi genuen hizkuntza. Arteko irakaslea aparta zen; oroitzen dut nola asper-asper eginda nengoen klasean Grekoari buruz ikasten, eta irakasleak pausoz pauso azaldu zidan Orgazko kondearen hileta, kolorea, argiztapena... Guztiz liluratuta amaitu nuen arte. Literaturako irakasleak, garai hartan, *Estilo* izeneko liburu bat idatzi zuen, zeinetan literaturari, estiloari eta garaiei heltzeko moduak azaltzen eta narratibak garatzen zituen. Garai hartan, hezteko modu hori ez zen ohikoa. Jakina, erlijioaren alderdia ere hor zegoen, egunero joan behar genuen mezatarara, derrigorrez.

Gerora garatzen joan naizen ikuspegi askok hor izan dute lotunea, batez ere urruneko munduekiko lotura estu horrek, nahiz eta, jakina, herri paganoak konkistatu nahi zituen ideologiak asko bustitzen zuen. Alabaina, denboraldi bat igarota, elementu hori kokatzen ikasten da, eta zentzu horretara atxiki edo ez aukeratzen da.

**Juanjo.** Oso interesgarria da azaltzen duzuna; izan ere, guk garapenerako hezkuntzaz hitz egiten dugunean –gaur egun hezkuntza askatzailea deitzen diogu–, garapenerako hezkuntzaren lehen faseaz azaltzen dugu sentikortze hutseko garaia zela, non herriak pobretutako herri gisa agertzen ziren, ekintzarik ez balute bezala, sufritzaileak balira eta beren egoerari aurre egiteko eta errealitatea aldatzeko gaitasunik ez balute bezala. Oso kritikoa gara hasierako fase horrekin, sentikortze-fase deritzogun horrekin, baina zuk, aldiz, zentzu baikorrean deskribatu dituzu fase horretako elementu batzuk, beste errealitate batzuez jabetzeko aukera balira bezala.

Zure kasuan, kezka eta sentikortze ia solidario hori ahalduntzeko elementu bihurtu da, eta horrek, seguruenik, historiaren, antropologiaren, kulturaren, herriaren eta pertsonen beren egoerari aurre

egiteko dituzten gaitasunez interesa izatera eramaitu zaitu. Vera Cruz ikastetxean ikastetik, Estatu Batuetan prestakuntza akademikoa jasotzera igarotzen zinen. Horrekin kontzientzia handiagoa lortu al zenuen? Nola erlazionatzen duzu Estatu Batuetako prestakuntza hori, zeinari esker Mikronesiara joan ahal izan zinen?

Teresa. Lehenik eta behin, azaldu behar dut 21 urte nituenean Mesedetako enlirio-komunitatean sartzea erabaki nuela, Ozeanian lan egiteko, nire familiak espero eta nahi zuenaren aurka. Ozeanian lan egitea ikastetxeetan lan egitea zen, horixe baitzen Misiolari Mesedetakoek han zutena. Batez ere Lehen Hezkuntzako ikastetxeak ziren, eta erreallitate gogorra zuten han, bero bizia eta eguneroko bizitzako berezko egoerak zirela eta.

Kontua da Bigarren Mundu Gerraren ostean, Nazio Batuek Estatu Batuei eman zieten uharte horiek bideratzeko ardura, zenbait herrialderen mende (Espainia, Alemania, AEB, Japonia) igarotako iragan horretatik, askatasun handiagoko egoera batera. Prestakuntza akademiko iparramerikarra jasotzea beharrezkoa zenez, erabaki zuten nik eta nire adineko beste batzuek AEBetan ikasiko genuela. Hala, *Saint Mary's College* ikastetxera eta Saint Louiseko jesuiten unibertsitate batera bidali ninduten. Esperientzia hori oso garrantzitsua izan zen niretzat; komunitatearen barruan, hainbat herrialdetako jendearekin bizi nintzen (Mexiko, Japonia...), eta bizikidetzak horri esker ideiak eta bizitza ulertzeko moduak partekatu genituen.

Ongi egokitu nintzen Ipar Amerikako irakaskuntzara. Inoiz ez nuen pentsatu talentua nuenik. Zinen bezala onartu, eta ezagutza eraikitzen laguntzen zizuten, ahalegintzeko gaitasuna eta originaltasuna izatea baloratzen zuten. Oroitzen dut sari txiki bat eman zidatela, Ediporen tragedia antzeztu nuenean. Ediporen istorioaren bidez ezagutu nuen ideia batek erakarri ninduen: patuan sakontzea, ez horren mende zaudela sentitzeko, dituen zailtasunetatik ulertzeko baizik. Nire buruan segurtasuna ematen zidaten konkista txikiak ziren.

Interesa piztu zitzaidan Greziako munduari buruz, naturarekin erlazionatzeko duen moduari buruz. Historiako eta arteko eskolatan, Quattrocentoko ikuspegi guztiak ikastea, ezagutzak nola antolatzen diren ulertu nuen. Nire burua aberasten zuten ezagutzak eskuratu nituen. Niretzat, *Collegea* benetan aparta izan zen.

“Garai hartan, Estatu Batuetako Historiari buruzko irakasgaia eman behar nuen, baina ikuspegi kritikotik irakatsi nuen”

Juanjo. Lehen Hezkuntzako fase horretatik elementu oso garrantzitsuak atera zenituen. Uste dut aurrera egiten ari zinela, ia jakin gabe, kultura deseraiki daitekeela dioten logika horretan. Berriz interpretatzeko deseraikitzea, eta ahalduz erekin lotutako interpretazioa ematea, seguruenik. Ikusten dut zure prestakuntzan garapenerako hezkuntzako lehen fase bat dagoela, Berriztik irten eta Estatu Batuetara joatean egin behar izan zuten igarotze kulturalako eta linguistikoko prozesu horretan. Estatu Batuetako eta Latinoamerikako Historian doktoretza eskuratu zuten, eta, azkenean, Ozeaniara heldu zinen, Mikronesiara, Guameko Unibertsitate batera; han hasi zuten irakasle eta ikertzaile modura egin duzun ibilbidea. Han beste igarotze kultural bat egin zuten, beste mundu eta erreallitate batean zeundelako, eta hura ikertzeari ekin zenion. Irakasle eta ikertzaile zinen aldi berean; fase antropologikoago eta hezitzaileagoa zen. Nolako izan zen ibilbide hori?

Teresa. Guameko Unibertsitatean hasi nintzen; oso berria zen, eta Mikronesia inguruko jende asko joaten zen hara ikastera. Hizkuntza ofiziala ingelesa zen arren, pertsonak beren hizkuntza eta kultura daramate. Garai hartan, Estatu Batuetako Historiari buruzko irakasgaia eman behar nuen, baina ikuspegi kritikotik irakatsi nuen. “Mikronesiaren Historia” kontzeptua lantzen ari zen jesuita baten interesarekin bat egin, eta, garai hartan unibertsitateak zuten malgutasunari esker, irakasgai hori ematen hasi nintzen. Esperientzia izugarria izan zen, zenbait tokitako jendea baitzegoen, eta bakoitzak bere esperientziatik eta kulturari buruz zuten ezagutzatik egiten zituen bere lanak, edo beren familiei ahaztutako trebetasunei buruz galdetuz. Hori oso aberasgarria izan zen niretzat eta talde osoarentzat. Unibertsitateko campusean Mikronesiaren eguna ospatzeko baimena eman ziguten, eta ikasleak elkartzeko hasi ziren, beren kulturarekin lotutako zerbait aurkezteko. Izugarriko garrantzia izan zuen aberastasun hori guztia eta aniztasunaren balioa unibertsitatearen esparruan sartzeak.

Interesgarria izan zen niretzat, halaber, *Micronesian Area Research Center* delakoan parte hartzea; unibertsitatean bertan sortutako erakundea zen,

“Orduan ikusi nuen antropologiak murgilketari buruz duen ikuspegia oso garrantzitsua dela, bizitza eta balioak zer diren ulertu nahi baduzu”

Mikronesiako eremu guztiei buruzko ikerketak egiteko. Nik eta beste pertsona batzuek egindako ekarpenak garrantzitsuak izan ziren zentro horren ibilbidean.

Gerora, unibertsitatea hazten joan ahala, doktoreak izateko behar handiagoa sortu zen. Orduan joan nintzen Hawaiira. Hasiera batean, nire doktoretza aurretik nituen ikasketekin lotuta egon behar zen arren, une horretan gizarte-antropologiara aldatzea erabaki nuen, horretan sakondu behar bainuen. Han Douglas Oliver aurkitu nuen, nire mentorea, Ozeano Barean espezializatutako antropologo handia. Oso aberasgarria izan zen ezagutza horietara hurbiltzea eta ikustea antropologiak ikasi eta bizi izan nuen guztia elikatze eta osatzeko balio zuela. Loturen gakoak ikasi nituen, baina baita kontraesanak ere. Beste ikuspegi bat neureganatu nuen migrazio-mugimenduei buruz –garrantzi handia zuten Ozeanian–, frankismoan ezagutu nituen migrazioez oso bestelakoa.

Juanjo. Horrek gogora dakarkit gizarte-antropologia oso zaharra den eztabaida bat, emic eta etic ikuspegiarena, hain zuzen ere, zeinak ikertzai-learen jarrera erabakitzen garamatzen. Kultura nondik aztertzen da, barrutik ala kanpotik? Zure kasuan, badirudi ikerketa antropologikoko prozesu horri esker kultura-azterketa hurbiletik berre-raikitze aukera izan zenuela. Orduan konturatu zinen nola herriak gai izan ziren kolonizazioari aurre egiteko, eta, hala, antropologia, hots, horren zerbitzura zegoen tresna, ahalduzko eta menderakuntzari aurre egiteko elementu bihurtzeko. Hala izan al da?

Teresa. Beno, hori baino konplexuagoa da. Urtebetez Guam uhartearen hego-mendebaldean egon nintzen, Umatacen; kultura benetakoago mantendu zen herrietako bat zen. Familia batekin bizitzen egon nintzen urtebetez, eta denboraldi horretan askotariko egoerak bizi izan genituen, batzuk oso zailak, Karen tifoia handik igaro eta eskualde erdia suntsitu zueneko, esaterako.

Orduan ulertu nuen ongi kultura. Orduan ikusi nuen antropologiak murgilketari buruz duen ikuspegia oso garrantzitsua dela, bizitza eta balioak zer diren ulertu nahi baduzu. Karen tifoia ikaragarria jasan genuen, baina, aldi berean, elkartasuneko esperientzia izan zen. Herriko ikastetxean zegoen aterpe horretan egotea tifoia aurre egiteko modu bakarra bihurtzen zuten mekanismo kulturalak aurkitu nituen. Kultura nola ikasten den ulertu nuen; egoera ezezagun baten aurrean, badakizu zer egin behar duzun, ia pentsatu ere egin gabe. Adibidez, heriotzaren inguruko erritualak garrantzitsuak zirela ikasi nuen. Kultura horri buruz ikasten duzu egiteko moduak dakizkizunean, eta, horrez gain, bitartekoak ezagutzen dituzunean.

Sekulako aurkikuntza izan zen nire egunerokoa jasotzen nituen oharrak berriz irakurri, eta konturatu nintzenean ez zirela teoriatik egindako kategoriak, ni inspiratzen ninduten gauzak baizik. Bizi izan nituen gauzei ematen zizkieten balioak aurkitzen joan nintzen, eta, prozesu horretan, kultura horretako balioak zirela konturatu nintzen; adibidez, hospitalitatea. Oraindik ere, balio horietako asko nire bizitzaren parte dira, mundu honetan egoteko dudaren moduren parte.

Juanjo. Irakurri dudaren testuren batean, egunerokotasunaren botereaz jabetu zinen unea azaldu duzu. Azaltzen duzu nola, tifoia gertatu eta gero, aterpe bihurtutako eskola horretan, elkarri bisitak egiten zenizkieten, gelaz gela pasatuta, familien artean egin ohi zen erritual baten barnean. Hau da, eskolan egunerokotasuna errepikatzen zenuen. Guztia hondoratzen dela dirudien ohiz kanpoko egoera batean, kulturaren balioa funtsezkoa da, hots, elkartasuneko eta lankidetzako harremanak berreraikitzea... Liluragarria iruditu zitzaidan irakurri nuenean, badirudielako une horretan kulturaren boterea ezagutu zenuela, hondamendiari aurre egin, eta komunitate moduan berregiteko ematen duen gaitasuna ikusi zenuela.

Teresa. Testu horietan ikusiko duzunez, eguneroko elkartasun txiki horiek aurkitzeak ere aberastu ninduen. Herri eta etxe horretan denboraldi bat igaro ondoren, niretzako toki bat behar nuela sentitzen hasi nintzen. Halakoetan, harri handi bat zuen muino batera joaten nintzen. Askok harritu ninduen jakiteak nirekin bizi zen familiaren ustez ingurune horretan espirituak zeudela –inork ez zidan esan–, eta, beraz,



begiruneko tokia zela. Toki horri "Teresaren harria" deitzen hasi ziren.

Orduan ulertu nuen zein garrantzitsuak izan daitezkeen sinesmenak. Batzuetan, pentsatzen nuen han denbora asko geratuko banintz, sinesmen haietako askotan parte hartzen amaituko nuela, erritualek duten indarragatik. Askotan, barre egiten dugu sinesmenez, baina ez dugu hausnartzen guk ditugun eta besteentzat bitxiak izan daitezkeen horiei buruz. Zalantzan jartzeko prozesu horrek ulertzen laguntzen dizu.

**Juanjo.** Bizipen horiekin guztiekin Euskadira etorri, eta garai hartan Zorroagako Filosofia, Psikologia eta Hezkuntza Zientzien fakultatea zenean sartu zinen. UPV/EHUra trantsizioan heldu zinen, hasi berria zen unibertsitate batera, eta zenbait gatazka bizi izan zenituen, askotariko tentsioz beteak: unibertsitatearen estatutuak zehaztea, irakasle ez-numerarioen mugimendua, etab. Nola moldatu zinen herrialdera, jatorrizko kulturara eta ekintzara itzultzean? Pentsatzen dut pixka bat zaila izango zela, ezta?

« Askotan, barre egiten dugu sinesmenez, baina ez dugu hausnartzen guk ditugun eta besteentzat bitxiak izan daitezkeen horiei buruz »

**Teresa.** Bai, oso zaila. Esan behar dut hausnarketako unea izan zela, bilaketakoa, eta, horren ondoren, Misiolari Mesedetakoen komunitatea utzi nuela; hori bai, izugarrizko esker onaz, nire bizitzan izan zuen eragin osoa aitortuta. Gaur egun horren guztiaren emaitza naiz, eta ez dut alde batera uzten, aberastu egin nauelako, pertsona gogoetsuago bihurtu nauelako, eta egokitze-prozesu horiek guztiak irakatsi dizkidalako, zeini esker horren esanahi osoari balioa ematen ikasi dudana.

Hasieran, oso gogorra izan zen, ilunpean zegoen herrialde bat aurkitu bainuen –ni tropikoaren eta Estatu Batuetako argien argitasunetik nentorren–. Negua gogoratzen dut. Gogoratzen dut korrika egitera irteten nintzela parkera, eta begiratu egiten



nindutela; beraz, korrika egiteari utzi nion. Nirekin bat ez zetozen gauza txikiak ziren. Aldaketa handia antzeman nuen, baina nire aldeko apustua egin zuten pertsona asko ere aurkitu nituen UPV/EHUn. Era berean, aberasgarria izan zen txikitatik nituen lagun batzuekin elkartzea, artearen munduarekin berriz lotzea –nire ahizpa Begoñaren eta haren eta nire koinatuaren lagun bidez–, nire aitarekin eta amarekin egotea haien azken uneetan...

Fakultatean lagunak egin nituen, oraindik ere mantentzen ditudan horietakoak. Ematen genituen eskolez oroitzen naiz; oso talde handiei eman nizkien eskolak –80 pertsonakoak edo gehiagokoak izan zitezkeen–, eta ahalik eta modurik dinamikoenean antolatzen genuen. Halako gogo biziak, ez zuten axola aparteko orduak.



Irudia: © Joseba Sainz de Murieta.

“Gure ikasleek sen kritiko bizia zuten, gai asko jartzen zituzten zalantzan, eta orduan ekin genion euskal matriarkatuaren kritika guztiari”

Zorroagan elkartasuneko giroa zegoen, tabernan elkartzen ginen gai askori buruz eztabaidatzeko, berrikuntza zegoen, jendeak proposamenak egiten zituen eta martxan jartzen genituen. Horrela antolatu genuen antropologiako hirugarren biltzarra; sekulako arrakasta izan zen, hasierako hitzaldia Jose Miguel Barandiaranek eman baitzuen. Ilusio handiko garaiak izan ziren, lan askokoak eta, aldi berean, aldaketak balioestekoak.

Gizarte-antropologiako ikasgaia ematen hasi nintzen, eta oso harrera ona izan zuen; ikerketa txikiak egiteko biltzen hasi ginen, eta hortik ikerketa feministagatiko interesa sortu zen. Gure ikasleek sen kritiko bizia zuten, gai asko jartzen zituzten zalantzan, eta orduan ekin genion euskal matriarkatuaren kritika guztiari. Ikerketa-talde bat osatu genuen, eta Jose Miguel Barandiaran beka-deialdira aurkeztu ginen, landa-inguruneko, kostaldeko eta hiriko emakumeen egoera aztertzeko proposamen batekin. Caro Baroja izan zen epaimahaiko buru, eta beka irabazi genuen; horri esker, bost urtez lan egin ahal izan genuen. Kohesio-elementu bat izan zen, eta horri esker sortu genuen Emakumeen Ikasketen lehenengo mintegia hemen; inpaktu handia izan zuen, eta feminismoari buruz argitaratzen hasi ziren ekarpenen eta lanen jatorria izan zen. Horixe izan zen etxera itzultzean bizi izan nuen esperientzia.

**Juanjo.** Emakumeen Ikasketen mintegia sortzeaz gain, antropologia feminista jakintza akademiko eta ikerketa-eremu bihurtu zenuen, mugimendu feministarekin harremanetan. Nola gertatu zen Unibertsitatean lan-eremu instituzionalizatu bat eraikitzeke momentu hori? Nola sortu zitzaizun feminismoa?

**Teresa.** Beno, ni dagoeneko feminista nintzen, ez zen une jakin batean sortu, segida moduan garatu zen. Mintegia sortzea garrantzitsua izan zen, askatasuneko gune bat zelako, eta, bertan, hausnartu, eztabaidatu eta ekoitzi egiten genuelako. Taldeko jendeak ikerketa feministak egiten zituen, eta argitaratzen joaten ginen.

Juanjo. Euskal matriarkatuaren aurka egin zenuen, zeina oinarritzko mitoa zen, euskal identitatearen elementu ukiezina, eta zuk irauli egin zenuen. Kritika asko jaso zenituzten, eta gogor eutsi zenioten.

Teresa. Gai horretan nahastu nintzen, baina ez nengoen bakarrik. Jakina, nik ordurako ezagutzen nuen kritika feministak mito horri buruz egiten duen berreraikuntza. Harrigarriena zen hemen oraindik indarrean zegoela eta pisu handia zuela. Zorroagako garai hartan, feministek eta gai horretan jo eta ke ari zirenek ere ez zuten sinesten, baina oraindik ez zen egon aukerarik kritika hori unibertsitatean eta beste irakurketa batzuk aipatuz egiteko. Ildo horretan, garrantzitsuena ikerketaren bermea izan zen. Caro Barojak bere babesa eman zigun garai batean, eta hori abiapuntu indartsua zen.

UPV/EHU oso une garrantzitsua izan zen, antropologia feminista ezartzen ari ginelako, eta, aldi berean, antropologia curriculumean sartu nahi genuelako, ez soilik Euskadin, baita Espainiako estatuan ere. Laguntzarik handiena Donostian Estatuko hirugarren antropologia-biltzarra antolatzea izan zen. Lan asko egin behar izan dugu antropologiak berezko entitatea izateko eta Gizarte Antropologiako Gradua sortzeko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean, tesi asko eta jende bikainarekin.

Juanjo. Antropologia ez da heldu Hezkuntzako Gradura. Soziologia sartzea lortu zen, pisu erlatiboa duen arren; hala, arlo hertsiki pedagogikotik ateratzea lortu zen, eta curriculumaz eztabaida kultural eta soziologikotik kanpo geratzen den irakasteko eta ikasteko metodologia hutsa izatea gainditu zen. Antropologia ez al da funtsezko osagaia curriculumari buruz kultura moduan hausnartzeko? Azken batean, curriculumaz gune itxi eta antolatua da, non irakasteko egokia dena eta ez dena zehazten den. Zer ekarpen uste duzu egingo lukeela irakasle baten prestakuntzan?

“UPV/EHU oso une garrantzitsua izan zen, antropologia feminista ezartzen ari ginelako, eta, aldi berean, antropologia curriculumean sartu nahi genuelako”



Irudia: © Joseba Sainz de Murieta.

Teresa. Modu, irakasgai eta gune berriak txertatzeko prozesu guztietan, oso garrantzitsua da nor dagoen toki horretan une horretan. Asko balioesten dut Hezkuntzako jendea, baina garai hartan inork ez zuen horrela ulertzen. Antropologia zenbait unibertsitateetan nola sartu den ikusi dut, eta pertsona batek edo batzuek gai horretan jartzen duten ahaleginaren baitan dago. Unibertsitate batzuetan, antropologia feminismoari esker sartu da.

Antropologiak munduaren ikuskera zabalagoa ematen du, desberdinkeriak sortzen dituzten desberdintasunak erakusten dizkizu. Desberdintasuna ondo dago, baina desberdintasun batzuek desberdinkeriak eta bazterkeria sortzen dituzte, eta antropologiak horretaz ohartzeko elementuak ematen dizkizu. Loturak bilatzeko ekarpena ere egiten du, begirada nola zabaldu pentsatzen laguntzen du. Antropologia errealitatean errotuta dago, baina askotariko errealitate batean, zeinak segurtasunak ere zalantzan jartzen dituen. Maila makroagoan, antropologia oso garrantzitsua da, ekarpena egiten diolako mundu aldakorrera irekitako unibertsitatearen zentzuari, ulermenari.

Juanjo. Uste dut bereziki garrantzitsua izango litzatekeela hausnarketa kritikoa egitea norberaren kulturari, curriculumari eta norberaren ezagutzari buruz, bai eta subjektu eta hezitzaile modura geure buruak eraikitzeke ditugun moduei buruz ere. Ildo horretan, antropologiak, gizarte-antropologia feministak, asko du esateko.

“Unibertsitateko gazteek bila dezatela zer interesatzen zaien, zerk motibatzen dituen eta benetan zer den erronka beraiantzat”

**Korrikari**<sup>1</sup> buruz egin zenituen gogoetak ere gogoratzen ditut, lasterketa amaitu arte jakitera ematen ez den mezua daraman “lekukoari” buruz, sinbologiarekin eta identitatearekin zerikusia duen guztiari buruz. Zer esan nahi zuen horrek?

Teresa. Korrikaren kontua ere une garrantzitsua izan zen nire lan akademikorako, Korrikaren beraren bizipena eta sinboloen indarra; hain zuzen ere, sinboloak mugiarazteko, zalantzan jartzeko eta elkartzeko gai dira.

“Indar oroitarazleak” duen garrantziaz idatzi dut, eta, hain justu, Korrikan ulertu nuen ideia horren indarra. Atharratzen hasitako edizioa izan zen; hantxe geunden, plaza txiki horretan, jende ugari Korrika hasi zain. Bat-batean, beltzez jantzitako pertsona bat agertu zen, maletatxoa eta makila zituela, eta plazan barrena ibiltzen hasi zen. Jendea isilik zegoen, hari begira. Orduan, izkina batean zeudenak mugitzen hasi ziren, historiaurreko gizonez jantzitako beste pertsona bat agertu zelako. Geure buruari galdetzen genion nor izango ziren pertsona haiek. Gizon bat, goitik behera beltzez jantzita, zeina zientziarekin lotutako pertsonaiatzat hartuko genuen gero, historiaurreko gizonarengana hurbildu zen, lehenengo euskal hiztuna aurkitu zuela oihukatuz, eta “lekukoa” eman zion. Orduan zirrara sortu zen; jendeak bertan agertzen zitzaiena ulertu zuten. Eta nik ulertu nuen indar oroitarazlea zela, hots, fisikoki gertatzen ez den arren, beste toki batera garamatzen esperientzia hori.

Indar oroitarazlea ez da oroipena. Oroipena nik sortzen dut, nire gogora dakart. Alabaina, indar oroitarazlea arreta jartzen duzun heinean hautematen duzu, ez dator zugandik.

Korrikan, biziki agertzen da tokien indar oroitarazlea, eta ondo islatzen da abiapuntuen eta helmugen aukeraketan. Iraganaren indar positiboarekin jolasten da, antzinakotzat jotako garai batekin lotutako agertokiak oroitaraziz.

Juanjo. Diozuna entzuten ari naizen bitartean, bururatu zait bereziki garrantzitsua dela oroitarazteko hezkuntza egitea; hau da, hezkuntza indar oroitarazlea sortzen duen makineria handia izan beharko litzateke. Irakasle kritiko garen heinean, gai izan beharko ginateke belaunaldi berrietan bestelako etorkizunak oroitarazteko. Amaitzeko, Teresa, zer mezu bidal diezaiekegu unibertsitateko ikasle gazteei?

Teresa. Bila dezatela zer interesatzen zaien, zerk motibatzen dituen eta benetan zer den erronka beraiantzat. Uste dut erronkarena funtsezkoa dela, beharrezko egiten baitu zeure buruari buruz hausnartzea eta zalantzan jartzea, erakartzen zaituena egiteko zer indar duzun neurtzea.

Juanjo. Beno, bururatzen zait erronkaren gaia ez dela unibertsitateko gazteak akuilatzeako soilik garrantzitsua; gizarte zibil antolatua ere erronka handiak ditu aurretik, esaterako, migratzaileen eta feministen aurkako diskurtso matxista eta patriarkala duen muturreko eskuin berriaren agerpena. Uste duzu hori izan daitekeela erronka sozial, politiko, akademiko eta antropologiko handia?

Teresa. Nola ez, ba! Jakina hori dela erronka. Gizarte osoarentzat, batetik, baina baita Akademiarentzat ere, gai izan beharko bailitzateke salaketa eta mobilizazio demokratikoko prozesu horietan laguntzeko, bere jakintzak emanez eta esperientzia horietatik ikasiz.

Juanjo. Eskerrik asko, Teresa.

Teresa. Eskerrik asko zuri; elkarrizketatzaileak pisu handia du elkarrizketan. Oso harrিতa nago, garran-

“... baina baita Akademiarentzat ere, gai izan beharko bailitzateke salaketa eta mobilizazio demokratikoko prozesu horietan laguntzeko, bere jakintzak emanez eta esperientzia horietatik ikasiz”

1 Korrika Euskal Herri osoan zehar egiten den euskararen aldeko lasterketa erraldoia da. Gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertzea eta gau-eskola zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea ditu helburu. Aipua hemendik hartu da: <[www.aek.eus/blogak/bilbo/korrika](http://www.aek.eus/blogak/bilbo/korrika)>.



tzitsutzat jo baituzue ibilbidea, inork aipatzen ez dituen elementuak; izan ere, gaur egun balio ekonomikoak nagusitzen dira. Bultzagarria izan badaitke, niretzat garrantzitsua da; pentsarazi, sentiarazi eta beste era batera ekitera bultzatu behar du.

Juanjo. Kontua da balioa prozesuei ematea, emaitzei beharrean. Eraginkortasunari gero eta gehiago begiratzen dion kultura honetan, gauzak prozesurik gabe sortzen direla sinetsarazi nahi digute, baina prozesuok, batzuetan, oso konplexuak dira, eta ibilbideak, konpromisoak eta bestelako balioak behar dira haietan. Bestalde, gizarte-arloan inoiz ez dago seguru lortu nahi duguna gertatuko denik. Hain zuzen ere, horregatik da interesgarria zure bizitzaren eta konpromisoaren historia hona ekartzea.



Nortzuk gara

• SETEM Hego Haizea

Hemen aurkituko gaituzue • [www.setem.org/site/es/euskadi](http://www.setem.org/site/es/euskadi)

## Sarean eraldatu: kontsumoaren esparruko indarkeria matxistei buruzko talde-begirada

Hainbat urtez kontsumo kritiko, arduratsu eta eraldatzailearen inguruko proposamenak prestatzen aritu ondoren, 2016an beste pauso bat eman, eta zera galdetu genion geure buruari: gure kontsumoak emakumeenganako eta heteronormatiboak ez diren subjektuenganako indarkeria matxistak sustatzen al ditu? Jakina, hausnarketa hori ez zen egun batetik bestera sortu. SETEM federazioak aspalditik du genero-desberdintasunei buruzko kezka. Inflexio-puntu bat aipatu beharko bagenu, seguruenik, 2011. urtera egin beharko genuke atzera; hain zuzen ere, urte horretan ekitatearen aldeko antolamendu-aldaketako prozesu bat jarri genuen martxan, eta, horri esker, gaur egun SETEM erakunde feministatzat har daiteke.

Pixkanaka hartu genuen jarrera politiko hori, egiaz-tatu genuelako indarkeria matxistak kontsumoaren

arloan ere gertatzen direla, gizarte-eremu guztietan gertatzen diren moduan. Horrela, ikerketa bat abia-razi genuen, ikertzeko nola garatzen diren indarkeria horiek ohiko produkzio- eta kontsumo-sistemetan; ikerketa horrek bi helburu zituen: desberdintasunak sortzen dituzten dinamikei buruzko gizarte-kontzientzia indartzen laguntzea eta ikertutakotik ikas-kuntzak lortzea, indarkeria horiek ez errepikatzeko SETEMek sustatzen dituen kontsumo-alternatibetan (bidezko merkataritza, banku etikoa...).

Ikerketa-prozesuan zenbait oztopo izan genituen. Hasteko, SETEMen asko genekien kontsumoari buruz, baina ez genuen ibilbiderik indarkeria matxisten gaian; hori izan zen oztoporik garrantzitsuena. Horregatik, zenbait bidelagun behar genituen: Mugarik Gabe (Euskadi), Altekio Iniciativas hacia la Sostenibilidad (Madril), Corporación para la Vida Mujeres que Crean eta Corporación Ecológica y Cultural Penca de Sábila (biak Kolonbiako Medellín hirikoak). Horiek guztiek, SETEM federazioarekin batera, talde eragile eta aholkularia osatu zuten. Bigarren zailtasuna zen indarkeria matxisten eta kontsumoaren arteko lotura ez zela asko aztertu akademikoki; hori dela eta, gorputz teoriko bat osatu behar zen, ondorengo ikerketa-lan osoari eusteko.

SETEMen lan-metodologiak erakunde-ikaskuntza lehenesten du, taldeko prestakuntza- eta hausnarketa-prozesu modura ulertuta. Horregatik jo genuen partaidetzako ikerketa- eta ekintza-eredura. Alabaina, laster konturatu ginen ez ginela ari prozesua partaidetzako ikerketa-ekintzaren berezko zorrotasun epistemologiko, politiko eta metodologikoarekin planteatzen. Horregatik, askotariko erakundeen arteko talde-lana eta partaidetza bultzatuko zuten eta,



horrekin batera, aztertutako fenomenoari buruzko neurriak hartzen eta horri ekiten lagunduko zuten teknikak aukeratu genituen. Hala, "indarkeria matxistei eta kontsumoei buruz ikasteko eta ezagutza sortzeko prozesu kolektibo bat" hautatu genuen. Ez genuen partaidetzako ikerketa-ekintza bat egingo, baina jakintzak sortuko genituen modu kolektiboan, esparru akademikotik kanpo, eta kontsumo kontziente, arduratsu eta eraldatzailearen arloan lan egiten duten erakunde eta pertsonentzat erabilgarriak, eskuragarriak eta irisgarriak izango zirela ziurtatuko genuen.

Lehenengo oztopo horiek gaindituta, **Zarensare sareko** zenbait erakundek<sup>1</sup> osatutako jarraipen- eta kontraste-batzorde batek bere laguntza eman zion talde eragileari, bai eta **Oreka Sareak** ere, zeinak bere gain hartu zituen prozesua dinamizatzeko zereginak.

Nabarmendu behar dugu hasieratik nahi izan genuela ikerketa ekintzarekin zuzenean lotuta egotea. Hau da, ikerketaren emaitzekin proposamen eta gomendio zehatzak egingo ziren indarkeria matxistarik gabeko kontsumo-eredu bat eraikitzeko, zertarako eta SETEM federazioaren, Zarensare sarearen eta beste erakundeen lana bideratzeko.

Ikerketaren lehenengo fasean, marko teoriko bat prestatzea zen helburu nagusia; marko horrek indarkeria matxisten eta kontsumoen arteko lotura agerian jarri eta azaldu behar zuen, parte hartu zuten erakunde guztien artean adostutako lau arlo zehatz aztertuta: estetika, elikadura, mugikortasuna eta etxeko produktuak.

Jarraian, marko teoriko hori eta euskal biztanleen errealitatea alderatu genituen, bi helbururekin: (i) jakitea herritarrek zer pertzepzio duten indarkeria matxisten eta ohiko kontsumo kapitalistaren arteko loturaz, eta (ii) indarkeria matxistek eta ohiko kontsumo kapitalistak Euskadin duten erlazioaren ezaugarriak zehaztea.

Azkenik, landa-lanaren emaitzak aztertu ondoren, indarkeria matxistei aurre egiteko kontsumo-eredu bat prestatzeko proposamenak eta gomendioak egiten hasi ginen.

1 Sagarrak Elkartea, Pozokoetxe Auzo Elkartea, Emakumeak Aniztasunean Elkartea, Hemengo eta Hango Emakumeak Elkartea, Margotu Elkartea eta Maria de Maeztu Forum Feminista.



SETEM Hego Haizea utzitako irudia.

Ikerketa amaitu delarik, garrantzitsua iruditzen zaigu partaidetzako metodologiaren aldeko apustua nabarmentzea; hain zuen ere, aukera eman digu askotariko ikuspegiak biltzeko, eta, horrenbestez, azterketa esponentzialki aberasteko interseksionalitatetik. Bestalde, beti argi utzi ditugunez ikerketaren ikuspegiak, askatasun handia izan dugu planteamendu teorikoak egitean. Azkenik, ondo pasatu dugu era horretan lan egiten; hala, agerian jartzen da ikerketa-lana ez dela nahitaez prestakuntza eta espezializazio handia duten profesionalentzat soilik (gainera, batzuetan pixka bat aspergarriak dira).

Hasi besterik ez gara egin. Oraindik bide luzea dugu aurretik. Horregatik, taldean ikertzen jarraituko dugu indarkeria matxistei eta kontsumoari buruz. Hurrengo lanak telebistako serieak, teknologia mugikorra eta energia izango ditu erdigunean. Mamitsua, ezta? Laster izango ditugu emaitzak. Egon adi.

SETEM Hego Haizea



Nortzuk gara

Hemen aurkituko gaituzue

- Brigada de comunicación del Movimento dos pequenos agritultores: *nén ù toy fã*
- <https://soundcloud.com/comunica-o-mpa>  
[www.radiotube.org.br/meuperfil-6765](http://www.radiotube.org.br/meuperfil-6765)

## Gazte eta herri komunikazioa: esperientzia bat IAPtik abiatuta

*Gazte talde baten irudiarekin hasi gara. Ekoizpen agroekologikoko nekazari kooperatiba batean daude elkartzuta, Brasil hegoaldeko Rio Grande Du Suletik ipar-ekialdera. Gazte horiek MPA (movimento dos pequenos agricultores) mugimenduaren parte dira, eta konputagailu baten inguruan daude... hurbildu gara eta barreak, ahotsak eta oihuak entzun ditugu; gidoi dramatiko baten entsegua egiten ari dira. Lan horretan, nekazari gazte baten hirirako irteerari buruz idatzi dute, bai eta hark topatzen dituen erroñei buruz ere; gazteak, azkenik, itzultzea eta baldintza berriak sortzea erabaki du.*

Kontakizun labur horretatik abiatuta aurkeztuko dugu *nén ù toy fã*<sup>1</sup> Komunikazio Brigadaren esperientzia. Brasilgo eta Kolonbiako erakundearen artean koordinatutako Irrati ekoizpenari buruzko prestakuntza prozesutik sortu da, eta irrati komunitarioan izandako esperientziaz eta Brasilgo nire ikasketez baliatuta osatu dugu ariketa hau, trukea eta indartzea bultzatzeko.

Horrela bihurtu zen Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea (IAP) ikuspegi epistemologiko bat, 2016. urteaz geroztik gaur egun arte pentsatzen eta egiten ari den prozesuari laguntzeko eta hura definitzeko. Lehenik, gure ustez, errealitatearen azterketa kolektibotik abiatutako ezagutza ekoizpena da IAP, gogoeta kritikoetan oinarritua, jendeak bere baldintzak hobetzera eramango dituen ekintza eraginkorrak bere gain hartzeko helburuarekin (Bonilla eta Fals, 1972).

IAP Latinoamerikako paradigma emantzipatzaileen parte da; horien proposamenek eta garapen teori-

koek, beraien esperientzietan zein beraien gogoeten eremuan bertan, munduko ideiak edo interpretazioak aldarrikatzen dituzte, eta, halaber, balioak eta borondateak berreskuratzen dituzte; horrek, orobat, dimentsio politikoak eta etikoak ekartzen ditu berarekin, gizarte-baldintzen eraldaketatik abiatuta (Torres, 2009). Era berean, IAPk ezagutzaren monopolioa hautsi nahi du, zeharkako estrategiatzat hartuz lan kolektiboa, herri jakintzaren aitortpena eta elkarrizketa.

Horrela hasi ginen, hortaz, irrati ekoizpeneko talde baten osieran gure hartu-eman gunea identifikatzen, eta komunikabide nagusien eta gizarte-mugimenduen arteko harreman konplexua onartzen, zeinetan existitzen den nolabaiteko konplizitatea boterearekin eta erregimenen legitimazioarekin; horietan, komunikabideek nekazarien proposamenak eta ekintzak irudikatzen dituzte, traumatismoaren edo "ordena publikoaren" hausturaren eskema baten baitan, edo kriminalizazioaren bitartez (López De La Roche, 2011).

Egoera horren aurrean, mugimenduek aitortpenerako aukera bat ikusten dute herri komunikabideetan, eta izaera askatzaileko beraien proposamenean, zeinak protagonistatzat hartuko dituen gizarte-sektoreak (Kaplún, 1985).

Ikuspegi horien baitan hasi dira herri hezkuntzan oinarritutako prestakuntza prozesuak; tailer teorikoekin batera, ariketa praktikoei ekin zaie horietan, definitu ahal izateko zer gai interesatzen zaizkigun, eta, orobat, kontuan hartzeko zer garrantzi duen gure komunitateei hitza emateak eta hura edukitzeak gidorien osieran eta irrati produktuen lanketan.

<sup>1</sup> *nén ù toy fã* esamoldeak "komunikazioa" esan nahi du Kainguangen hizkuntzan; hain zuzen, MPAk lan egiten duen eremuko komunitate indigena bat da aipatutakoa.



Hemen, ezagutzaren monopolioarekiko hausturaren alde, *zure eta nire arteanetik gure arteanera* igarotzen da, Carlos Rodriguesek (2018) proposatzen duen moduan, eta horrela egiten da jakintzen eta ezagutzen arteko baliokidetasuna. Alderdi hori, praktikan, prestakuntza prozesuen plangintzan, ebaluazioan eta proiektzioan adierazten da, bai eta brigadaren beraren eraketan ere. Fals Bordak gogoeta-ekintza erritmo esaten die horiei (IAPn baitakoak), zeinak artikulatzen duten, ezagutza zehatzetik orokorrera, ekintza guneak kontzeptualizazio eta gogoeta guneekin; zeregin artikulatua da, hortaz (Fals Borda, 1997).

Funtsezko beste alderdietako bat praxisa da, egiteko politikoaren printzipioa izateaz gainera, zientzia sozial kritikoaren oinarrietako bat ere badena, zeinetan lotzen diren teoria eta praktika, hausten diren ezagutzaren oztopoak –irriti ekoizpenarenak, kasu honetan–, eta, era horretara, brigada osatzen duten komunitateei aukera ematen dien beraien jakintzak eta esperientziak eta ezagutza berrien sorkuntza eztabaida gune batean kokatzen.

Era berean, beraiek, mugimenduaren kide diren aldetik, onartzen dute beharrezkoa dela beraien intelektual propioak prestatzea eta beraien teoriak sortzea (Zibechi, 2007); eta hori gaien definizioan adierazten da, zeinetan presente dauden elikaduraren arazoa, proposamen agroekologikoa, eredu ekonomikoaren eztabaida eta landa-hiria harremana, eta horiekin batera, feminismoa, gazteriaren zeregina, gazte izatea, betiere azterketa teorikoetatik, beraien azterketa teorikoetatik, beraien esperientzia eta hizkuntzetatik abiatuta argudiatuak.

Azkenik, lurraldearen alderdia lanaren beraren funtsa da, aitortuz bai beraiek bai ezagutzaren ekoizle gisa parte hartzen duten komunitateek irratia egitean eremu publikora iristen direla, eta, horrela, beraien hitzaldiei loturik eskualdeko berezko adierazpenak baliatzen dituzte, bai eta beraien nortasunak berregiten dituzten musikak eta hotsak ere. Ikerketa, Ekintza eta Partaidetza hirukoak, Herri Komunikazioak eta Herri Hezkuntzak autonomia ematea bilatzen dute nazioartean, herri boterearen jardun gisa.

## Bibliografia

Bonilla, V. D; Fals, O.; Castillo, G.; Libreros, A. (1972). *Causa Popular, Ciencia Popular: Una metodología del conocimiento científico a través de la acción* (2. zkia.). Bogota, Kolonbia: Rosca de investigación y acción social.



Luz Ángela Rojas utzitako irudia.

Carrillo, A. T. (2009). "Educación popular y paradigmas emancipadores". *Pedagogía y Saberes*, 30. zk. Unibertsitate Pedagógico Nacionala. Hezkuntza Fakultatea, 19-32. or.

López de la Roche, F. (2001). "Medios de comunicación y movimientos sociales: incompreensiones y desencuentros". In Archila, Mauricio (ed.): *Movimientos Sociales, Estado y democracia en Colombia*. Santa Fe de Bogota, Kolonbia. Kolonbiako Unibertsitate Nacionala. Gizarte Ikasketen Zentroa.

Kaplún, M. (1985). *El Comunicador Popular*. Buenos Aires. Argentina: Editorial Humanitas.

Rodrigues, C. (2018). Entre Macondo e Nós: uma coletânea de escritos sobre a investigação que pretende ser algo mais do que apenas científica. Hemendik hartua: <[www.apartilhadavida.com.br](http://www.apartilhadavida.com.br)>.

Orlando, F. B. (1997). *El problema de cómo investigar la realidad para transformarla por la praxis*. Bogota, Kolonbia: Tercer Mundo editores, 7. Ed.

Zibechi, Raúl. (2007). *Autonomías y emancipaciones: América Latina en movimiento*. San Marcosko Unibertsitate Nazional Nagusia, Gizarte Zientzien Fakultateko Funts Editoriala eta Demokrazia eta Eraldaketa orokorra Programa. Hemendik hartua: <[www.democraciaglobal.org/wp-content/uploads/Autonomias-y-emancipaciones\\_America-latina-en-movimiento.pdf](http://www.democraciaglobal.org/wp-content/uploads/Autonomias-y-emancipaciones_America-latina-en-movimiento.pdf)>.

Luz Ángela Rojas Barragan. Antropologoa, pedagogian espezialista, eta gaur egun maisutzagaia, latinoamerikar ikasketen diziplinarteko programan. Esperientzia du irriti komunitarioan eta herri prozesuetan.



## Talka: bollera, trans eta emakumeen saretzerako lehenengo espazio okupatua Gasteizen

Badira bi hilabete Talka jaio zenetik, aurrekaririk gabeko proiektua Gasteizen. Bollera, trans eta emakume ezberdinok eskuratutako eraikina, urte luzez hutsik egon dena, bizitzaz betetzeko helburu irmoarekin. Gasteizko errealitatean hutsune handia sumatu eta honi aurre egiteko sortutako proiektua dugu hau. Izan ere feminismotik aspaldi erantzun genion bollera, trans eta emakumeen artean biltzearen beharrari, sistema heteropatriarkalak zapalduetako subjektuak garen heinean, espazio propioen beharra dugu. Hauetan elkar ezagutu, kezka eta interes amankomunak aztertu, militatzeko eta antolatzeke era ezberdinak ezagutu eta asmatu eta jadanik ezagutzen genituenak gure egin, ahaldunduz eta gizon zis, txuri eta heterosexualeen presentzia gabe gure izana aldarrikatzeko eta espazio publikoa bereganatzeko apustua egin genuen. Denborak aurrera egin ahala, hala ere, pausu bat gehiago emateko beharra ikusi dugu, sisteman ataka, pitzadura izatearena. Argi daukagu gaur egungo sistema kapitalista heteropatriarkalaren baitan ez gaudela seguru eta hau irauli arte ez garela askeak izango. Beste bizi eredu bat posible dela sinisten dugu, kapitala gure bizitzako momentu eta praktika oroz baliatzen baita bere biziraupena bermatzeko: lantegietan, sukaldeetan, jai giroetan eta baita oheetan ere. Hori dela eta, bizitza eta zaintza erdigunean jartzeko praktika integralak abiatu nahi ditugu, eraldaketari ekarpena egiteko. Proiektua honek, zapaltzen gaituen sistemari alternatibak badirela erakutsi eta harremantzeko, antolatzeke eta bizitzeko modu anitzak aztertzeke aukera ematen digu.

Testuinguru honen baitan hala ere, erreferentziazko espazio fisiko baten gabeziarekin topo egin dugu: era askean erabiltzeke, autogestioaren bidez proiektu ezberdinak aurrera eramane eta jarduera anitzak

planteatzeko, pertsona ezberdinak gerturatu eta elkar ezagutzeko. Azken batean saretzerako eta alternatibaren garapenerako espazio gisa irudikatzen dugu Talka, erasotzen gaituen sistema bera (heteropatriarkala, arrazista, kapitalista, koloniala eta kapazitista) errotik konfrontatzeko bitarteko ezinbestekoa. Sistemak eta instituzioek feminismoa asimilatu nahian dabilzan garai hauetan, bere izaera errebelde, iraultzaile eta eraldatzailea kendu nahirik, erne ibili behar gara eta gure borrokarako lekua identifikatu eta aldarrikatu. Merkatuek feminismoa kontsumorako produktu eta erreklamo gisa saltzen digute eta instituzioek helburu elektoralistarekin aurpegia garbitu eta gizarte mugimendu honen helburu eraldatzailea desitxuratzen dute. Honen aurrean guk sisteman arrakala sortu nahi izan dugu, argi utziz ez dugula inoren gidaritzapean antolatzeke beharrik, indarra, gaitasuna eta gogoak baditugula sistema konfrontatu eta alternatibak sortu eta bizirik mantentzeke. Okupazioa, desobedientziaren bidez autogestioaz baliatzen den erraminta dugu eta zentzu honetan garrantzitsua deritzogu azpimarratzea Talka guretzako estrategia bat dela eta ez helburua bera; hau da, gure helburuak eta proiektuak aurrera eramateko baliabide gisa ulertzen dugu espazio hau, aurrera eramane nahi ditugun praktika ezberdinak martxan jartzeko baldintza beharrezkoa.

Aurreko guztia kontuan hartuta du zentzua guretzako Talka izenak. Talka egitea, aurre egitea da, konfrontazioa lehen planoan jartzea. Izan ere, ezin dugu feminismoa gatazka gabe ulertu. Feminismoa zapalkuntza iturri ezberdinak identifikatu eta borrokatzen dituen heinean sistemaren errora jotzen du, honekin talka eginez. Hori dela eta feminismo kritiko, ezkertiar eta iraultzaile baten alde egiten dugu, etengabe hausnartzera bideratzen gaituena, ditugun gabeziak identifikatzera, borroka moldeak

birpentsatzera; azken batean teoria praktikaz janztera eta proiektu integrala eraikitzen.

Sisteman arrakala izateko jaioa den heinean espazio segurua izan dadin nahi dugu okupatu berri dugun eraikina: sistemaren eraso ezberdinei antolatutako autodefentsa kolektiboaren bidez erantzunez, saretzeaz baliatuz elkar zaintzarako espazio fisiko zein emozionalak sortzeko. Gutako kolektibo ezberdinei (aniztasun funtzionaladunak, migratuak, arrazializatuak, prekarizatuak, gorputz, identitate etab. ez normatiboak ditugunok) eragiten diguten zapalkuntza anitzen aurka estrategiak garatzeko espazioa da Talka, babeslekua. Denborarekin, hausnarketekin, garatutako aliantzekin eta aurrera eramandako jarduera zein proiektuekin espazioak erreferentzialtasuna irabaz dezan lan egiten ari gara, sistemaren alternatiba feminista antikapitalista bilatzen duen edozein bollerera, trans eta emakumeek bere egin dezan proiektua, bai parte-hartze puntualetan (tailerrak, hitzaldiak, jardunaldiak...) zein eguneroko antolakuntzan: lan taldeetan sartuz, ideia ezberdinak proposatuz eta martxan jarriz. Zentzu honetan espazio bizia da Talka, bi hilabete hauetan bere izaera, oinarri ideologikoak eta funtzionamenduaz eztabaidatzen egon gara forma ematen joateko, eta hauxe da, alegia, oinarri hauetako bat: Gasteizen proiektu feminista eraldatzailea garatzea, autodefentsa kolektiboaren bidez trans, emakume eta bollerentzako espazio aske eta segurua bilakatzea. Baieztatu ahal izan dugu behar partekatua dela identifikatu dugun hori, harrera ona izan baitu proiektuak. Esperientzia, bizi eredu, adin eta jatorri ezberdineko pertsonak gerturatu baitira Talkara, honen berri izateko gogoz, bertan parte hartzeko modu ezberdinen bidez.

Talkaren ibilbide motz honetan dimentsio eta konplexutasun honetako erronka batek eskatzen dituen lanetan murgilduta ibili gara. Alde batetik, eraikin zahar eta handi honek urteak eta urteak hutsik daramanez garbiketa, espazioen antolatze eta atontzea eta materialen hornitze (mahaiak, aulkiak, argiak etab.) jarduerak beharrezkoak izan dira. Zentzu honetan eta lan hauek kolektibizatze asmoz auzolan ezberdinak burutu ditugu, auzoko eta hiriko pertsona ezberdinak gerturarazi dituenak. Espazioaren mantentzerako lan hauek ezinbestekoak diren arren, elkar ezagutzeko eta disfrutatzeo parada ere izan dugu antolatutako jarduera anitzei esker: kantautoreak, eskulan tailerrak, hitzaldiak, bideo proiektioak etab. Talka bezalako proiektuak arlo ezberdinetako jakintzak gure artean partekatzea ahalbidetzen digu; tradizionalki gizonezkoetat hartu



Talka utzitako irudia.

diren lanak (elektrizitatea, iturgintza, mantenimendua) gure gain hartuz eta arlo ezberdinetako emakume adituak ezagutaraziz (arkitekta, arrotzak) honek suposatzen duen autogestio eta ahalduentzarekin. Hauxe baita zapaltzen gaituen sistemak ezingo diguna inoiz kendu: aniztasunetik aliantzak sortu, garatzen ari garen babes sarea handitzen joan, alternatibak errealitate bilakatu eta ikasten, desikasten, sortzen, josten eta borrokatzen jarraitzea.

Talka.

\* Aldizkari hau argitaratze unean Talka hustu dute. Baina, Talka espazio bat baino askoz gehiago da, proiektu integral bat da, herri mugimenduaren elkartasunari esker bizirik iraungo duena. TALKA EZ UKITU! DESALOJOAREN AURREAN AUTODEFENTSA FEMINISTA!

# begirada konprometituak

zinema  
dokumentalak



Izenburua: Hezkuntza salgai

Tokia, urtea: Euskal Herria, 2018

Zuzendaritza: Zuriñe López de Sabando eta José Maza (STEILAS)

Produkzioa: **STEILAS Sindikatua**

**Sinopsia.** *Aukera berdintasuna, segregazioa, gaitasunetan oinarritutako ikaskuntza, ebaluazioa, berrikuntza pedagogikoa... Gaur egun, ohikoa da gure hezkuntza sistemaren osasunaz eztabaidatzea eta asko dira eztabaida horri aurre egiteko ikuspuntu ezberdinak.*

*STEILASen (Euskal Herriko Hezkuntzako Langileen Sindikatua) Hezkuntza Salgai egitea erabaki dugu. Dokumental honek, hezkuntza paradigma berriaren atzean zein dagoen eta pertsonen behar eta eskubideak non geratzen diren aztertzen du.*

*Euskal Eskola Publikoa momentu historiko oso garrantzitsuan aurkitzen da, dokumental honek momentu honetako egoera ulertzeko tresna izatea du helburu, alternatiba berriak eskainiz bai Euskal Herrian baita munduan ere (STEILAS Sindikatua)*

Bideoa hemen ikus dezakezue: <[www.youtube.com/watch?v=igwmoYVQiKE](http://www.youtube.com/watch?v=igwmoYVQiKE)>

Izenburua: Mapeatze kolektiboko tailerra, sozialki konprometitutako ikerketa eta ekintza parte-hartzailean

Tokia, urtea: Bilbao, 2019

Zuzendaritza: Hegoa

Errealizadorea: **Curruscu**



**Sinopsia.** Bideo honetan jasota daude *Mapeatze kolektiboko tailerra, sozialki konprometitutako ikerketa eta ekintza parte-hartzailean* egin zen bitartean sortutako ekarpenak eta irakaspenak. Ekimen hori Hegoako hezkuntza talde batek sortu zuen, eta Bilboko San Frantzisko auzoan egin zen, 2018ko azaroan.

Esperientzia hau auzo horretan egitea erabaki genuen, "Unibertsitatea kalera ateratzeko" eta ezagutza leku zehatz bateko arazoekin lotzeko asmoa geneukalako. Han, ikasleekin, unibertsitateko irakasleekin eta eragile sozialekin elkartu ginen; guztiok ere gizarte aldatzeko ikerketa kritikoarekin konprometitu gaude. Ikerketa eta ekintza parte-hartzaile horri esker, lortu genuen hurbiltzea subjektu eraldatzaileen esperientziak balioan jartzen dituen ezagutzara, bai eta strategiaren atzean dagoen ikuspegi politikoan arakatzea eta unibertsitate esparruarentzat hezkuntza emantzipatzaileerako proposamenarekin lotutako prozesu batean parte hartzea ere.

Bideoa hemen ikus dezakezue: <<http://multimedia.hegoa.ehu.es/es/videos/100>>



argitalpenak

**Izenburua:** Ciencia, compromiso y cambio social. Antología de Fals Borda  
**Biltzaileak:** Nicolás Armando Herrera Farfán eta Lorena López Guzmán  
**Tokia, urtea:** Montevideo, 2014 (2. argitalpena)  
**Argitaletxea:** [El Colectivo](#), [Lanzas y Letras](#), eta [Extensión Libros](#)



**Sinopsis.** *Liburu honek aditzera ematen du Falsen obraren konplexutasuna eta nola proposatzen zuen egile horrek XX. mendean zehar gizarte zientzien diziplinetan nagusitutako ikuspegi zatikatu eta mugatua gainditzea (Smith, 1997). Haren xedea ez ziren ez zaintzailatza akademikoa ez kontenplaziozko erreberentzia. Asmoa ez da Falsen "bidea" berregitea; gehiago da gaur praxirako baliagarri gerta daitezkeen lorratzak bilatzea. Horregatik, ez du bila dabilena lan honetan aurkituko, agian, Hansel eta Gretelen ipuin ospetsuan bezala prozesuari eta maisuaren galderari jarraitzeko asmotan dabilen horrek.*

*Argitalpen honek ageriko asmo politiko bat du: memoria historikoa berreskuratzea, gaur egungo ekimen politikorako tresna gisa. Horrek esan nahi du Fals Borda partekatzeke interesa dugula, baduelako eguneroko eginkizun politikoari zer eskaini, izan gizarte zientzialari konprometituak garen aldetik nahiz oinarriko gizarte militantziaren ikuspegitik. Hortik dator, hain zuzen ere, obraren izena, Ciencia, compromiso y cambio social, zeinetan ikusten baitira, argi eta garbi, gure asmoak (eta baita, gure iritzian, Falsenak ere) (Biltzaileak).*

Hemen ikus dezakezue: <[www.extension.udelar.edu.uy/wp-content/uploads/2016/12/08\\_Ciencia\\_Compromiso\\_y\\_Cambio\\_Social-Fals\\_Borda.pdf](http://www.extension.udelar.edu.uy/wp-content/uploads/2016/12/08_Ciencia_Compromiso_y_Cambio_Social-Fals_Borda.pdf)>



**Izenburua:** La Investigación Activista Feminista. Un diálogo metodológico con los movimientos sociales  
**Egilea:** Alejandra Araiza Díaz eta Robert González García  
**Tokia, urtea:** On-line artikulua, 2017ko iraila-abendua  
**Argitaletxea:** [EMPIRIA](#). Revista de Metodología de las Ciencias Sociales

**Sinopsis.** *Artikulu honek gizarte mugimenduetako ikerketa aktibistako estrategia du aztergai, epistemologia feministaren ikuspegitik. Egileek ikerketa aktibistaren esparruan duten esperientzien atzera begirako azterketak biltzen ditu, esparru metodologiko berri bat oinarri harturik, betiere: Ikerketa Aktibista Feminista (IAF). Testuak "ezagutza kokatuen" proposamena du abiaburu, eta mugimendu global berrien eta feminismoaren hirugarren oldearen uztarketan kokatzen du IAFren azaleratzea. Ondorio gisa, esan daiteke partaide izan garen ikerketa aktibistako esperientziak IAFn txertatzeko modukoak direla eta gizarte zientzietatik gizarte mugimendura –subjektu gisa harturik– egindako hurbilpen egokiena direla, epistemologikoki nahiz metodologikoki, aukera ematen baitute bildutako datuak eta analisiak ezagutza kokatu, akademikoki adierazgarri eta sozialki erabilgarri bilatzeko (Alejandra Araiza Díaz eta Robert González García).*

Hemen ikus dezakezue: <[www.redalyc.org/articulo.oa?id=297152673003](http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=297152673003)>

erakundeak

Izen Kolektiboa: Emagin

Eragin-esparrua: Euskal Herria

Webgunea: [www.emagin.eus](http://www.emagin.eus)



**Ideales de lucha.** *Emagin, ikerketa, formazioa eta eskuhartze feminista sustatzen duen elkarte da. Jendarte eraldaketaren alde lan egiten dugu eta horretarako prozedura feministak erabiltzen ditugu gure oinarrizko lan esparruetan: Ikerketa, Formakuntza, Eskuhartze komunitarioa eta Ekoizpena.*

*Ikerketa, aholkularitza eta eskuhartze komunitarioa*

- *Ikerlarien eta ikerketa egitasmoen saretzea: Euskal Herrian asko dira lan eremu honetan diharduten elkarteak. Gainera, geroz eta ikerlari gehiago daude teoria feminista zein epistemologia feminista oinarri dutenak. Horien guztien saretzea eta elkarlana bultzatzea ezinbestekoa da guretzako.*
- *Ikerketa propioak: Euskal Herrian asko dira eremu edo sektore anitzetan dokumentazio, ekoizpen zein informazio bilduma garatzen duten proiektuak. Horiez gain, gu geu parte garen errealitate politiko, ekonomiko eta sozial honetatik egindako analisi eta ikerketa feministak egiten ditugu (Emagin).*

Izen Kolektiboa: CIMAS sarea, gizarte eraldaketarekin eta partaidetza demokraziekin konprometitutako profesionalen sarea

Eragin-esparrua: Espainiako estatua

Webgunea: [www.redcimas.org](http://www.redcimas.org)



**Borroka idealak.** *CIMAS sarea gizarte zientzien esparruko profesionalak osatuta dago; sareko kideok diziplina askotako formazioa jaso dugu, gure ingurune sozial eta politikoarekiko konpromiso aktiboa dugu, eta ingurune horretan esku hartzen dugu, aniztasuna, inklusibitatea, sormena eta lankidetzaren harturik oinarrizko irizpidetzat.*

*Sare modura antolatuta gaude, eta guneak ditugu Europako eta Latinoamerikako hainbat herrialdetan. Gizarte eraldaketa iraunkorraren helburuak batzen gaitu, betiere, iraunkortasunaren testuinguruan kokatuta, pertsonak eta komunitateak bizitzaren ardatz harturik eta esparru publikoa prokomunaren esparruan berdefinitzearen aldeko apustua eginez.*

*Gaur egun, badugu, halaber, online ikastaroetarako plataforma bat, zeinaren bidez lantzen baitugu askotariko testuinguruetara aplikatutako partaidetza metodologiaren esparruko prestakuntza. Gure metodologia soziopraxia deritzon kokatuta dago. Talde gogoeta egiten dugu, askotariko teknika, dinamika eta tresnen bidez, pertsonak eta gizarte sareak beren errealitatearen ezagutzari buruz dituzten bizipen eta inplikazioak abiapuntu harturik, ekimen proposamen sortzaileei bidea irekitzeko, monitorizazio eta gaitzitzekin.*

*Elementu adierazgarri gisa, genero ikuspegia txertatzen dugu gure jardueraren guztietan, ezinbesteko elementua delako gizarte eraldaketa lortzeko, zeina baita gure lanaren azken buruko xedea (Red CIMAS).*


ezinbesteko  
agenda

**Ekitaldia:** "Investigación Comprometida para la transformación social"  
Hezkuntza Ikerketari buruzko Nazioarteko XIX. Biltzarra

**Deialdia:** Asociación Interuniversitaria de Investigación Pedagógica (AIDIPE)

**Lekua eta eguna:** Madril. 2019ko ekainaren 19a, 20a eta 21a

**Informazio gehiago:** <https://aidipe2019.aidipe.org>  
<https://aidipe2019.aidipe.org/programa-cientifico>



*AIDIPE 2019ren helburua da hezkuntza ikerketaren esparruko azken aurrerapenak aurkezteko eta eztabaidatzeko topagune izatea. Biltzarraren edizio honen ardatza hezkuntza ikerketak gizarte eraldaketarako tresna gisa eskaintzen dituen aukerak aztertzea da.*

*Datuek erakusten dutenez, ageriko gertaerak dira gizarte berdintasunik eza, ingurumenaren degradazioa eta munduko ekonomia hazkunde mantsoa: gaur egungo gizartearen krisi humanitario eta balioen krisi handienaren erakusgarriak. Mandelak zioenez, "Hezkuntza da mundua aldatzeko armarik ahaltsuena", eta, ildo beretik, hezkuntza ikerketak ezin ditu ahaztu benetako arazoak, eginkizun esanguratsua bete behar du gizarte eraldaketan eragina duten premia errealei erantzuteko. Uste osoa dugu hezkuntza ikerketa kalitatezkoa bada, gai eta ikuspegi metodologikoekiko konpromisoa badu, kooperatiboa bada eta hezkuntza komunitatearekin eta gizartearekin lankidetzan badihardu soilik izango dela lagungarria hezkuntza hobetzeko, eta, horrekin batera, gizartea eraldatzeko (AIDIPE).*



**Ekitaldia:** "Epistemologías del Sur" espezializazioa eta nazioarteko ikastaroa

**Deialdia:** Centro de Estudios Sociales de la Universidad de Coimbra (CES) y Consejo Latinoamericano de Ciencias Sociales (CLACSO)

**Lekua eta eguna:** Formazio birtuala. 2019ko apirila – 2020ko martxoa

**Informazio gehiago:** [www.clacso.org.ar/sur-sur/especializacion\\_y\\_curso\\_internacional\\_4.php?idioma=esp](http://www.clacso.org.ar/sur-sur/especializacion_y_curso_internacional_4.php?idioma=esp)

*Espezializazioak eta nazioarteko ikastaroak Hegoaldeko Epistemologiaren hiru ardatz nagusi hauek dituzte oinarri:*

1. *Munduaren interpretazioa haren interpretazio eurozentrikoa baino askoz ere zabalagoa da;*
2. *Ezinezkoa da justizia sozial globala justizia kognitibo globalik gabe;*
3. *Munduan sortutako emantzipazio eraldaketak ezin muga daitezke Iparralde globala ardatz duen teoria kritikoek garatutako gramatika eta gidoietara; aitzitik, aitortu, ezagutu eta aintzat hartu beharreko dibertsitate bat aldarrikatzen dute Hegoaldeko Epistemologiek. (CLACSO eta CES).*



**matxino artean  
en rebeldía**



**Greba feminista. ¡Este año volvemos a hacer historia!**



**matxino artean  
en rebeldía**



**Greba feminista. ¡Este año**

**volvemos a hacer historia!**